

BIZITZA JOKOAN

Jokoarekiko menpekotasuna
duten bi lagunen testigantzak 20



IURTEI
OSPATZEN
DITUGU

HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


Jose Arletxe kalea, 5
(Ameketa herriaren) 20730 Azpeitia



INNOVA
HORTZ KLINIKA

📞 943 025 955

**HOBE DA
ZAINTEA
ETA ENTZUTEA.**



www.gaes.es

Etorri GAESera eta eskura itzazu:

**ENTZUMENAREN AZTERKETA OSOA
balorazio txostenarekin batera.**



**ESKAINTZEN DITUGUN ENTZUMENERAKO
KONPONBIDEEN PROBA, konpromisorik gabe.**

DOAN

GAES Azpeitia

Foru Pasealekua Ibilbidea, 8,

Tel. 943 15 03 95


GAES
Centros Auditivos

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 211.a (2018ko abendua)
Urte. XIX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.eua
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren
laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2018KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Zer ospatzen
duzu: Olentzero edo
Erregeak? **13**

mamia

Elkarrizketa. Mirari
Zubizarreta dantzari
ohiarekin solasean **04**
Klik! Zaldiak ditu pasio
Unai Segurolak **16**
Kontsumo ohiturak.
Eguberrietan urte
osoko joerari eusten
diote herritarrek **26**


jakiteko

Atzera begira. 25 urte
joan dira Aitzaki
sagardotegia itxi
zutenetik. Arakistain
famiakoek bizirik
gordetzen dituzte
hango oroitzapenak **34**

Ba al dakizu uztarriak dagoeneko
gainditu dituel iazko urte osoko
webguneko bisitak? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia**
txikiak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide
gara Uztarria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta.

MIRARI ZUBIZARRETA

dantzari ohia

“dantzari izanda zaila da soldata bat lortzea”

Denbora luzez dantza izan du bizibide Mirari Zubizarretak. Gorputzarekin duen harremana utzi gabe, beste bide bat hartua du egun. 📝👁️ Ihintza Elustondo

Gaztea zela egin zuen topo Mirari Zubizarretak bere pasioarekin: dantzarekin. Probatu bezain laster jakin zuen dantzaria izan nahi zuela eta horretarako behar zen guztia egingo zuela. Baita lortu ere: urte askoan dantzari profesionala izan da. Ibilbide horretan, une gozoak nahiz gaziak bizitzea tokatu zaio, eta horien guztien errepasoa egin du, patxadaz.

Nola murgildu zinen dantza-ren munduan?

16 urte nituela hasi nintzen dantzan Donostian, Maite Fagoagarekin. Hark esan zidan dantzari profesionala izateko beranduegi zela ordurako, normalean, 4-5 urterekin hasten zela jendea dantzan. Esan zidan niretzat aukerarik

onena Bartzelonara edo Madrilerako joatea zela, leku horietan ba-zeudelako eskolak jende helduagoarentzat. Eta 18 urte betetzean, Bartzelonara joan nintzen.

16 urterekin dantzan hasi, eta 18rekin Bartzelonara joan. Argi zenuen zein zen zure bidea.

Beti eduki izan dut Azpeititik irteke gogo. Umea nintzela, lehen aldiz oporretara joan nintzenean, harrapatu egin niduen esperientzia hark, eta mundua ezagutzea nahi nuen ordutik. Gero, dantza agertu zen nire bizitzan, eta kanpora joatea gomendatu zidatenean, nire ahizpa Bartzelonan bizitzenez, hara joatea erabaki nuen. Nire garaian ez zen jende asko joaten kanpora ikastera, eta niri gu-

|||DATUAK|||||||

|||**Jaio.** 1969ko maiatzak 1.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.** Dantzari ohia.

rasoek horretarako aukera eman zidaten; asko eskertzen diet hori.

Zerekin egin zenuen topo Bartzelonan?

Ahizparekin joan nintzen etxe batera bizitzera, eta zentzu horretan, bere babesa sentitu nuen. Baina dantzari dagokionez, beste mundu batekin egin nuen topo. Askok gustatu zitzaidan aurkitu nuen, baina kostatu egin zitzaidan mundu hartan sartzea. Izan ere, nire adineko jendea ia profesionala zen han, eta ni orduantxe ari nintzen hasten. Dena den, kon-
taturatu nintzen dantza ez dela balleta eta konpainia handiak baka-

rrik, beste mundu zabal bat zegoela ikusi nuen, eta hor bazegoela lekua niretzat. Dantza garaikidea, dantza antzeztua... ezagutu nituen, eta bide horretatik jo nuen. Nik argi neukan konpainia handiek eskatzen zituzten baldintzak ez nituela beteko, baina beste aukera bat ere bazegoen: talde txikiak elkartu ginen, entseatu egiten genuen, gure koreografiak muntatu, aurkeztu...

Zer kostatu zitzaizun gehien?

Lehenik, gorputzeko lana; esijentzia batzuk jarri zizkidaten, eta ordu asko sartu behar izan nituen maila horretara iristeko. Eskolara joan aurretik, etxean ariketak egiten jarduten nuen, goizeko bostetan jaikituta eta. Emozionalki ere



kostatu zitzaidan: teknikoki eta gorputzean nituen mugekin, beldurak eta segurtasun falta nituen, eta horiek ez zidaten uzten asko irekitzen. Sentitzen nuen gauza asko falta zitzaizkidala. Horregatik, paraleloki mundu emozionala lantzen hasi nintzen, ikusten nuelako alde batetik aurrera egitea nahi banuen, beste bidea ere landu beharra nuela. Ordutik, gorputzaren eta emozioen bideak beti elkarrekin landu ditut.

Nola, adibidez?

Formazioak egin ditut, eta koreografiak, teknikatik beharrean, emozioetatik abiatuta muntatu izan ditut. Sentitzen nituen gauzak mugimendura eramaten nituen, terapia modura. Hori asko landu izan dut.

Uste duzu dantzak balio duela terapiarako?

Niri asko balio dit, eta uste dut jende askori balio diola, kanalizazio bat delako. Agian, ezin dugu bideratu gure barruko mundua hitzez, eta gorputzak hori adierazteko sekulako aukera ematen du, musikak, antzerkiak edo pinturak bezala. Asko askatzen du gorpu-

tza mugitzeak; gorputza asko ixten da, eta dantza asko erabiltzen da barruko gauza horiek denak askatzeko eta beste harmonia batean sartzeko sentimenduekin.

Bartzelonan hainbat urte eman ostean, Marbellara [Espainia] joan zinen bizitzera. Zer aurkitu zenuen han?

24-25 urte nituela, hara ezkondu nintzen. Han flamenkoa lantzen zuen eskola batean sartu nintzen, eta flamenkoa nahiz sevillanak ikasi nituen; horrez gain, eskolak ematen ere hasi nintzen. Flamenkoa lantzen zuen talde jator bat topatu nuen han, eta beraiekin hasi nintzen koreografia batzuk muntatzen eta. Gero, konpainia batean sartu nintzen, eta lan asko egin genuen hoteletan ikuskizunak eskaintzen. Beti ibili naiz eskolak ematen eta nire gauzak egiten, aldi berean; baita Bartzelonan ere.

Zenbat denbora egin zenuen Marbellan?

Zazpi-zortzi urte. Bizitza pertsonalean aldaketa batzuk gertatu zitzaizkidalako utzi nuen Marbella.

Bizitzan prozesu asko pasatzen dira, eta batzuetan zaildu egiten da bidea: ama izan nintzenean, adibidez. Izan ere, sormenaren mundua bizitzeko ez da erraza. Agian, zortzi ordu ematen nituen konpainiarekin lanean egunero; batzuetan, goizeko hiruretan bukatzen nituen entseguak. Eta ez da hain erraza dinamika hori ume batekin, bikotekidearekin... uztartzea. Errealitate horiek asko erretzen dute pertsona, eta erabakiak hartzea behartzen zaituzte. Konpainia laga nuen semearekin gehiago egoteko, eta dibortziatu egin nintzen. Orduan laga nuen behin betiko dantza; ez nintzen iristen denera. Horren ostean, prozesu emozionalak, yoga, bioenergetika... gehiago lantzen hasi nintzen, eta bide horretatik jarraitu dut gerora.

Zaila egin al zaizu dantzari lanbidea bizitza pertsonalarekin uztartzea?

Bai, eta umerik izan gabe ere bai. Izan ere, dantzari izanda oso zaila da soldata bat lortzea. Zure gauzak sortzen dituzu, baina gero hori saltzea eta horrekin bizitzea ez da

batere erraza. Agian, urtebete pasatzen genuen muntaia bat egiten, eta gero bi egunetan baino ez genuen aurkezten jendearen aurrean; eta batzuetan, ez genuen dirurik irabazten horren truke. Horregatik, sormen lanarekin batera, beti egin dut beste lan mota bat: eskolak eman, adibidez. Urte batzuk pasatu nituen saiatu eta saiatu, baina iristen da puntu bat non hasten zaren energia gehiago eskaintzen eskolak emateari, eta joaten zaren poliki-poliki sorkuntza lana gutxitzen. Niri hori gertatu zitzaidan. Batzuk bai, baina gutxi bizi dira sormen lanetik bakarrik.

Dantza asko gustatu arren, lanbide bihurtzen denean, beste era batera ikusten dira gauzak?

Bai. Orain 49 urte ditut, eta dagoeneko dantza ez da nire lanbidea. Dena den, berdin jarraitzen dut gorputza lantzen eta ikasten. Orain, yoga, terapiak eta sormen dantza lantzen ditut, baina profesionalki ez dut egiten ja dantza. Ez dut egiten bizitzeko dirua behar dudalako, eta diru hori lortzea oso zaila ikusten dudalako dan-

tzaria izanda. Bizitzeko behar dudana soldata izango banu, koreografiak muntatzen, jendea formatzen... lan egingo nuke.

Emozioen munduan murgilduta zabilta gaur egun. Zer deskubritu duzu arlo horretan?

Asko mugitzen gaituztela emozioek. Gorputza somatizazio bat da: gorputzean pasatzen den dena gure emozioen eta energiararen isla da. Beldurra eta segurtasun falta ditugu, gauza asko daude gure barruan, eta gorputzak adierazi egiten ditu; batzuetan minez, eta besteetan, beste era batera.

Urte asko eman zenituen kanpoan bizitzen. Erraza egin al zitzaizun jaioterrira itzultzea?

Hamahiru bat urte izango dira Azpeitira etorri nintzela, eta ez zitzaidan hain erraza egin bueltatzea; alde batetik bai, eta bestetik, ez. Nire gertuko jendea hemen dago eta gustura nago, baina oraindik gustatzen zait hemendik mugitzea. Marbellara ez, baina Bartzelonara asko joaten naiz lagunak ikustera nahiz formazioak egitera.

Zer eman dizu urte guztio-tan dantzak?

Gauza asko. Batez ere, bizitzeko era ezberdin bat; egituretatik kanpo bizitzen ikasi dut, nahiz eta gero egiturak bilatu behar izan ditudan mantentzeko. Horrez gain,



Mirari Zubizarreta dantzan hasi berrian. **Uztarria**

jende eta bizitzeko modu ugari ezagutu ditut, eta horrek burua ireki zidan gaztea nintzela. Lana eta esperientzia ere eman dizkit, eta beste modu batean mugitzen ikasi dut. Gainera, beste diziplina batzuk ezagutzeko aukera ere eman dit: bide emozionala eta energetikoa, esaterako.

Ez al duzu faltan sumatzen lehen bezala dantza egitea?

Bai, asko, hori baita nire pasioa. Dena den, orain, profesionalki aritzen ez naizen arren, egongelari musika jarri eta aspertu arte egiten dut dantza. Pena eman zidan dantza uzteak, baina dantzaz aparte, beste gauza asko

egin ditut, nire barne mundua etengabe lantzeko, eta beste gauza horiek dantza adina gustatzen zaizkit. Pertsona orokorrean interesatzen zait, eta beti ari naiz gauza berriak deskubritzen.

Gaur egungo gizartean, gorputzari behar beste kasu egiten al diogu?

Egiten zaio kasu, baina askotan, itxura fisiko jakin bat mantentzeko helburuarekin: irudi bat emateko edo argala egoteko. Baina iruditzen zait oraindik asko falta dela gorputzaren kontzientzia hartzeko. Gorputza fisiologikoki hartzen badugu, egitura bat dauka: hezurak, giharrek, tendoia... Eta hori

guztia zertarako da? Giharrek egitura hori heldu egiten dute. Baina zenbaterik lantzen dituzte giharrek egitura horri eusteko? Jende gehienak egiten du ipurdia bere lekuan edukitzeko edo giharrek izateko. Eta hori ondo dago, baina gorputza beti eduki behar du gure elusteko eta tonifikatuta; izan ere, adinean aurrera egin ahala, giharrek landu gabe baldin badituzu, egitura hori erori egiten da. Gorputza ez da landu behar itxuragatik bakarrik, baita osasunerako garrantzitsua delako ere. Egitura eusteko giharrek ez badakazu, minak hasten dira adinean aurrera egin ahala.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Abercaino poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago azoka, 12
Tel. 943 343 443
Zumaiia

San Juan, 16 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Askeola

Gosolaga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua

Gremioen koordinazioa

Epeak betetzea

Erakusketa handiak

Tipi-tapa

Negu usaineko haizea masailak laztanduz lepotik behera sartzen eta lepa atzetik ateratzen zait behin eta berriz. Haizeak begiak kizkurtzen eta urtzen dizkidanez, beheratu egin dut begirada eta azkartu pausoa, egoskor.

Beherantz begiratzean aldatu egin da bidea. Galipot beltza koloretako hosto hilez bete du etengabeko haizeak. Nire pausoa agertzen eta desagertzen dira ezkerreko eta eskuineko zapatak. Tipi-tapa, tipi-tapa...

Eta hasi da nire burua martxan Lasaoko bideko lehen ehun metroak egin baino lehen. Bizitza eta heriotza, haizea, hostoak, tipi-tapa... Haizea etengabe aurrera doan denbora litza-teke; epela eta atsegina batzuetan; zakarra eta hotza besteetan; ahula aldizka; indartsua tokatzen denean. Nire bi zapaten tipi-tapa, berri, erlojuaren erritmoa; sasoi onean tinkoa eta orekatua; nekatzean, berriz, makala eta baldarra.

Ibai ertzeko eta bide bazterreko zuhaitzetan sasoi betean samurrak eta orlegiak ziren hostoak, neguan ahulak eta laranjak dira. Zuhaitzari gogor lotuak ziren lehen; orain, aldiz, doi-doi eta etsita egiten diote aurre bultzaka duten haizeari. Beldur dira, ez dute erori nahi. Ez dute hil nahi. Beno, gutxi badira ere, badira hiltzeari beldurrik ez dioten hosto batzuk.

Haizeak, ordea, ez du etenik, denborak atzera bueltarik ez duen bezala. Ez du barkatzen, ez du bereizten, ez du begirik, ez bihotzik. Hasieratik eta azkenean, haizeak irabazten du, nola ez! Etsi dute hostoek, erori dira azkenean halabeharrez! Bi esku betirako askatzen diren moduan askatu dira hostoa eta adarra. Askatu da jaio eta bizi izan dena, hiltzeko. Eta harrapariak harrapakiñarekin jolasten duen moduan, jolasten du haizeak hosto hilaekin. Putz egin ez, nahi duena egiten du berarekin: gora biddaltzen du, jira eta bira ibiltzen du, eta nahikoa jolasten duenean, lurrera erortzen uzten du, beste baten bila joateko.

Paradoxa izango da agian, baina tragediak



olatz aguado

||| Lasaoko pasiera bakarrik egitera gonbidatzen zaituztet, irratirik gabe, zentzumen guztiak adi dituzuela

badu bere baitan edertasunik. Hostoak etsi duen momentua ederra dela alegia, ederra hostoaren dantza, ederra hostoaren erortzea, ederra galipotez egindako bidearen itxura al daketa... Ederra hori dena imajinatzea.


Bide berbera?

Ez dakit zer duen pasieran bakarrik ibiltzeak, baina haizearen laztanengatik ez balitz, nire pausoen tipi-tapagatik eta edertasunaz gozatzeke gaitasunagatik ez balitz, ez nukeen hau dena biziko, ez nukeen hausnarketa erromantikorik egingo, ez nukeen heriotzaren inguruan natural idatziko.

Banoa aurrera, Lasaoko bide aldatuan aurrera, eta ezagun baten agurrak esnarazten nau nik nahi gabe. Imajinaziotik esnatu dira nire begiak eta pasierako zein puntutan nagoen konturatzea ere kostatu zait momentu batean. Agurtu dudana ezaguna nor zen ikusteko begiratu dut atzera. Gero izango ez dut bakoitzari irabazitako despistatu fama!

Iritsi naiz Lasaoraino; itzulerako bide bera egiteak beti eragin dit egundoko alfergura! Horregatik, ia nahi gabe jarri dut imajinazioa martxan, eta hasi naiz ametsetan; izan ere, bide berak ez du zertan bide berbera izan behar, ezta?

Lasaoko pasiera bakarrik egitera gonbidatzen zaituztet, irratirik gabe, zentzumen guztiak adi dituzuela. Gonbidatzen zaituztet norbere buruarekin egotera, hausnartzera, amestera... Horrela joan-etorria ez da bera izango. Horrela, norbere burua eta ingurua ulertzeko ikuspegi zabaltzen eta aberasten dela uste dut. Horrela, norbera ere aldatzen da!*



Nire Laboa

Abenduan sartu berriak gara. Hotza hezurretaraino sartzen da garaiotan Euskal Herrian eta ohi baino pauso arinagoz noa eskolatik etxerako bidean. Igo-gailutik ateratzerako, ahots hautsi ezagun bat deiadarka, etxeko atea zabaltu eta konfirmazioa. Sehaskatik emana zait akorde kadenztzia hau. Izenik ez diet jartzen, baina kantatzen badakizkit. Ama sofán eserita dago etsiak jota bezala, eta erreka bi darizkio begietatik okotzeraino. Albistea eman berri dit, eta zerbait zartatu da gudan. Ez gudan bakarrik, dolua askorena izango da.

Halaxe oroitzen dut duela hamar urteko abenduaren 1a. Esan gabekorik ba ote dagoen zalantzan jartzen hasi naizenerako, eginda neukan Laboaren nire definizioa –zuzen dezan, zirriborroa–. Arrazoiak osatzen joan ahala, enegarren aldiz bere kantak aditzean, ertz berriak topatu izan dizkiot gure etxeko eta nire umetako Laboari. Beti harritzen nau, nola denboran hala suhertasunean, iraunkorra baita berekiko dudan afana. Bizitzan oso gauza gutxiarekin gertatu izan zait hori.

Laboaren kanteak badute halako erakarpén aparteko bat. Beren sinpletasunean, gutxi bezala heltzen dira jendearengana eta estetikoki irudi indartsuak dakartzate. Indarraz mintzo, ezin ahatz nezake Laboaren zuzeneko. Bere azken kontzertua entzuteko zortea izan nuen –zuri eskerrak, ama–, eta erabat ahultzen hasitako pertsona batek agertokian hartu zuen presentzia datorkit akordura lehengo memoria kolpean. Askok aipatu dute zuzenekoetan lortu ohi zuen konekzio bete, eta ez zaie arrazoirik falta, inpaktantea zen. Hango ahots, hemengo hots, hitz, olerki herriko eta abarren bitartez jasotzen zuen ahozketasuna goien gradura.

Denon Laboa

Figura konpartitu bat da Mikel Laboarena, oso gurea eta oso denona. Euskaldunok badugu aita ponteko berezi bat obra bete perla



jon gurrutxaga

Sinboloak behar ditugu, gure kausaren bizkarzaina izango den epika sortzea. Eta nik txoria nuen maite

debalde eman ziguna, kantetan imajinario propio bat eratu zuena eta belarri kolektibora tatuatuta bezala geratu diren aireak konposatu zituen –ihes beterik ez da zilegi eta ez da posible zure kasuan, Mikel–. Dena diogu eskertzeko, beraz.

Horren da gurea eta horren da denona, ezen edonork darabilen nire Laboa nahieran. Eta niri min ematen dit nire Laboa edozein etxetan zein eskaparartetan edozer ordezkatzeko. Nor naiz ni, hala ere, beren Laboarekin zer egiten duten epaitzeko. Unibertsaltasunak arrisku hori dakar, apropiazioa eta desitxuraketa. Sinboloak behar ditugu, gure kausaren bizkarzaina izango den epika sortzea. Eta nik txoria nuen maite.

Nire Laboa betikoa eta berria da, soila bezain sakonekoa, tradizionala baina transgresorea; espiritualtasun ateo. Nire Laboa askea, hots, konprometitua da, etsipena eta esperantza da; utopia lurtarra. Bikoiztasun etengabea da plano bakarrera ekarrita, baina batez ere, haustailea eta eraikitzailea da. Horrek, gaurko eta hemengo Euskal Herrian esan nahi duen guztiarekin.

Kantatzen dugunero jaioko ahal da nire Laboa. Ez bedi egundo fosildu.✱



GRUPO UKABI

The logo for ukabi, featuring a stylized blue 'u' followed by the word 'kabi' in a blue sans-serif font.The logo for a3ERP Fi, with 'a3ERP' in red and 'Fi' in black inside a white square.

a3ERP
Fabricación Integral



Zerbitzari eta
Sistemak

The logo for inika, featuring an orange circle followed by the word 'inika' in a black sans-serif font.

Inika Kudeaketa
Akademikoa

The logo for eSOFT, with 'e' in red and 'SOFT' in black in a bold sans-serif font.

Web diseinua



Cloud zerbitzuak



Orrialdeko kostua
duten inprimagailuak

The logo for Informaticando, featuring a stylized orange hand holding a keyboard, with the word 'Informaticando' in black below it.

Karteleria digitala



Totem eta mahai
taktikak



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Bada zer hobetu oraindik

Uemak osasun zerbitzu publikoetako langileen hizkuntz eskakizunez azterketa egin du. Azpeitiko anbulatorioko bostetik langile batek ez du dagokion hizkuntz eskakizuna; hau da, langileen %20k.  Julene Frantzesena

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea osatzen duten 86 herrietako osasun zerbitzu publikoetako langileen hizkuntz eskakizunak aztertu ditu Uemak. Aurtengoan familia medikuak eta pediatriak ez ezik, erizainak, harrerako langileak eta larrialdi zerbitzuetoak ere izan ditu kontuan azterlanean. Uemako herrietan 616 beharginek egiten dute lan arlo horietan, eta 133k (%21,6) ez dute eskakizuna.

Azpeitiko kasua antzerakoa da; izan ere, anbulatorioan 35 familia medikuk, pediatriak, erizainek eta harrerako nahiz larrialdi zerbitzuetoak beharginek egiten dute lan, eta horietatik zazpik ez dute dagokien hizkuntz eskakizuna (%20). Larrialdi zerbitzuetan lau medikuk eta lau erizainek egiten dute lan, eta erdiek –bi medikuk eta bi erizainek– ez dute hizkuntz eskakizuna. Datu hori da ezkorrena, azpeitiarrei ez ezik,

inguruko herrietako biztanleei ere eragiten dielako.

Bederatzi familia medikutatik bik ere ez dute hizkuntza eskakizuna, ezta hamar erizainetako batek ere. Dena den, azken bi urteotan izan da aldaketa bat: gaur egun lanean ari diren hiru pediatriak euskaldunak dira –lehen pediatretako batek ez zuen hizkuntz eskakizuna–. Josu Labaka Uemako lehendakariak nabarmendu du herritarrek urteetan eskatu dutela pediatria guztiak euskaldunak izatea.

Hark azaldu duenez, oro har, Osakidetza ari da osasun zerbitzuak euskalduntzeko “pausoak” ematen, baina oraindik hutsuneak “nabarmenak” dira. Arazoaren oinarriari heldu eta “apustu serioa” egin behar delakoan dago, profesionalak euskaraz formatzeko eta profesional euskaldunek Osakidetzan lana euskaraz egiteko aukera duina izan dezaten.*



Azpeitiko anbulatorioaren eraikina.  Uztarria



Jabier Arenas.

ESANA DAGO

“Asko eman dit Urola ibaiak, eta omenaldia egin nahi izan diot [lanarekin]”

JABIER ARENAS
‘Urola ibaia’ dokumentalaren egilea

“Esango nuke ‘Rosa itzuli da’ iraganaz betetako oso gaur egungo nobela bat dela”

“Jakin nahi nuen indar harremanek nola eragiten dioten hizkuntzari eta literaturari; zer ikusarazten duen indarra daukanak eta zer ezkututzen duen”

PAKO ARISTI
idazlea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 61

IKA argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 90 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

Zuri-beltzera buelta

Jaio nintzenetik 18.263 egun pasatu berri dira. Egunena ez, baina urteena bai, zenbaki borobil bezain biribila. Mugarri horietako bat. Ez naiz atzera begira denbora asko galtzen duen horietakoa, baina oraingoan, ezinbestean, garuna zuri-beltzean jarri eta txikitako oroitzapenen txokora jo dut.

Ez naiz ni xapo integrista erradikala, baina xapoen herrian jaiotzea erabaki nuen, Ibaier ibai ederraren alboan, Atxuian. Ijitoen bihurgunea gogoan dut, eskailu eta kangrejo harrapatzen nola ibiltzen ginen ere bai. Amama Albina eta attitte Pedrokekin patata jasotzen genuen, eta Leorekin larunbatero

futboleant aritzen ginen, sagastian. Potzutako Anjelek agindutako enkarguen truke jasotako propinak ere ez zaizkit ahaztu. 8 urterekin Atxuia eta Betharram arteko joan-etorria bakarrik egiten nuen egunean bitan. Martzelinoekin Loiolako ikastolara joan eta etxera itzultzeko esan zigutenekoa ere oroitzen dut; bi-botedun txikia hil zela eta, hiru egun jai eman zizkiguten. Zubiolan Txokolo, Ribera eta Arretxe ikusita, futbolaz maitemindu nintzen. Azkargortak entrenatzaile titulua atera zuela ere hantxe jakin nuen. Ume pottolo mukizu hark gogoan du oraindik ere Garmendipen Atxuia, Irentzaile, Uantxo eta Pipillo ikusiz

Lagun Onak betirako bihotzean gorde zuela. Otaegi afusilatu eta Nuarbera bidean zenbat gris pase izan ziren ere ez dut inoiz ahaztuko. Telebista kate bakarretik UHFra pasatu ginean, periferia utzi eta erdigunera migratu behar izan genuen.

Ziudadeko bizitzara egokitzea ez zen erraza izan. Ziudadeko argiak piztearekin batera, oroimenaren txokoko lehen solairuko bonbikak itzali zaizkit. Ortiz de San Pelayon bigarren etapa hasi zen. 438.312 ordu pasatu berri dira. Aurrera begira dezagun. Beti aurrera. Iragana inoiz ahaztu gabe. Esker onez. Zirenek garena eman zigutelako.*



txetxu urbieta



▲ OINEZKO GITARRA-JOTZAILEAK, HEMENDIK.

Herriko hainbat musika taldek entseatzeko erabiltzen duten Zubi Zarretik gertu ikus daiteke argazkiko irudia. Bidegorria seinaleztatzeko lurrean margotuta dauden oinezkoen siluetetako bati gitarra bat margotu dio norbaitek, baita begiak eta irribarrea ere, ibiltariaren irudiari beste doinu bat emanez. 🎸🎵 **Mailo Oiarzabal***

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



Zorionak, hirurogeita hemeretziroi!

KIROLA. Izugarria izango da maratoi erdi bat egitea. 'Behobia'-k, bereziki, izango du zerbait, hainbeste jendek egiteko. Beraz, zorionak, guztioi! Baita bukatu gabe gelditu denari ere, noski, saiatzea bera ez baita gutxi. Eta horrelako proba batean inoiz izena emateko gai izango ez garenok has gaitezen edo jarrai dezagun geure 'probatxoekin': pasieran, bizikletan, dantzan... Gorputz-buruek eskertuko digute!



|||alaitz aguado|||



Ezagutzen al dugu herria?

HERRIA. Jakina da ondare aberatseko herria dela Azpeitia. Baina zer dakigu gure eraikin historikoez? Enparan familia oñaztarra ala ganboatarra zen? Zeinek eta zeinentzat eraiki zuen alberga? Zer dakigu Bakardadearen ka-peran hilobiratu zuten Nikolas Elolaren Peruko ibilerez?



Azpeitiko hurrengo alkatea emakumea izango dela dirudi

POLITIKA. EH Bilduren eta EAJren hurrengo alkategaiak emakumeak direla irakurria nuen eta albistearen bila ibili naiz. Aurkezpenak urrian izan ziren, ordea. Hala ere, Aitor Gorrotxategiren hitzak hartuko ditut aitzakiatzat esan nahi nuena esateko. "Beste batzuen txanda"

omen da, dio Gorrotxategik plazaratu duen gutunean; eta bazen, bada, garaia, beste horiek emakumeak izateko. Ez dute hobeto egingo emakume izate hutsagatik, baina irudi kontua ere bada; izango ez da ba, Azpeitian, alkate izateko gai den emakumerik.✘

INKESTA

Olentzero edo erregeak, zein ospatzen duzu?

I. Elustondo/I. Soraluze

IMANOL OIARZABAL

36 urte




"Batez ere, Olentzero, hemengoa delako edo. Halere,

Erregeetan detailetxoren bat egiten dugu. Gabonak ahal den ondoen pasatzen saiatzen naiz beti".

OIHANA MARTINEZ

36 urte



"Etxean Olentzero ospatzen dugu, eta amonaren etxera Erregeak

iristen dira. Asko gustatzen zaizkit Gabonak, garai berezia izaten delako eta kaleak, argiak piztuta, politik egoten direlako".

IANIRE SAGARNA

21 urte



"Biak ospatzen ditugu, betidanik. Gustatzen zaizkit Gabonak,

familiarekin egoteko egunak direlako eta kalean giro ona egoten delako. Opariak jasotzea ere asko gustatzen zait".

ANDONI GURRUTXAGA

17 urte



"Umea nintzela, Olentzero ospatzen genuen, baina orain,

Erregeak. Egia esan, ez dakit zergatik egtien dugun horrela. Aparteko ilusiorik ez didate egiten Gabonek, baina gustatzen zait familiarekin jan-edanaz gozatzea".*

Ahohandi eta belarrigor

Hamaika esateko, hamaika entzuteko jaioak gara; batzuek, ordea, belarriak itxita dituzte, eta, ahoa zabaltzen duten orduko, beste batzuei belarriak eta, zer esanik ez, ahoa irekitzeko gogoak kentzen diete. Ni neu nazkatu ninduten: hamaika egunez guztiz eta erabat euskara hutsez egin ezingo nuenez, ezin omen nuen *ahobizi* izan; *belarriprest*, gehienez ere. Bularretik txapa kentzekotan ere egon nintzen.

Hara, denok ez genuen berdin ulertu rol kontu hori. Ezta asertibitate kontzeptua ere, antza. Lehenengo hitza euskaraz egin eta ulertzen ez zidatenean —eta ez zidatela ulertuko egiaztatu ondoren—, gaztelaniaz komunikatzen nintzelako, Hizkuntza Politika sailburua bezala (!!!), "belarriprest aktiboa" al nintzen? Eta ezer esango ez banu, zer, "ahobizi pasiboa"? Uleritzen ez didatela jakinaren gainean egonda, entzungor egin eta euskaraz jarraitzen badut, ez zait iruditzen asertiboa naizenik; belarrigor ahohandia, asko jota.



IMANOL AMIANO

Izan ere, euskaraz ez dakitenak ere baditugu gure artean; nire inguruan bai, behintzat; eta, tamalez -egia da-, nahi baino gehiagotan %80 elebidunak %20 elebakarrari men egin behar izaten dio. Diglosi egoera horretan, batzuek ez dute euskara ikasteko asmorik —tamalez, egia hori ere—, baina beste batzuek bai, eta ari dira. Horiekin, lehenengo euskarazko hitza ulertzen ez duten horiekin, zorrozkeriaz jokatzeko badugu, geureganatu beharrean uxatu egingo ditugu, eta %20ko zakuzulo horrek bere horretan jarraituko du, handitzen ez bada.

Erronka ez da hamaika egun horiekin amaitu, hasi besterik ez da egin. Dagoeneko txapa paparretik kenduta, hamabigarren egunetik aurrera euskaraz normaltasunez egitea da kontua; lehenengo hitza euskaraz egin; eta ulertzen ez badizute ere zeureari eustea aukera bat da, bai. Horrela euskarara erakarriko dituzulakoan.*

galdetzen hasita, euskaraLdia ariketa sozialaren eraginak nabaritu al ditugu hemendik aurrera? Uztarria

Errutik erantzukizunera

Abenduaren 8an, Maria Sortzez Garbiaren jaia ospatzen du Eliza katolikoak. Kontzepzio, "Kontzeziyo". Nik ere bai. Zorionak Kontxi, Sorkunde eta Garbiñe guztiei.

Sortzez Garbiaren dogma, ordea, guztiz ulertezin bilakatu zaigu, "jatorrizko bekatua" deritzon dogma bezalaxe. Alegia: Adam eta Eva izeneko bikote bategandik gatozela denok, haiek Jainkoaren agindua —"Ez jan ongiaren eta gaizkiaren zuhaitzeko fruiturik"— urratu zutela eta paradisuatik jaurtikiak izan zirela, eta harrezkero haien bekatuaren errua eta zigor latza —sufrimendua, grina txarrak eta heriotza— daramatzagula soinean guztiok sortzetik bertatik. "Jatorrizko bekatu" horren errudun eta zigordun jaiotzen garela guztiok. Denok, bat bakarra salbu: Nazareteko Maria.

Hori dio dogmak, baina horrela esanda ez du zentzurik. Adam eta Evarena mito da, ederra, irakaspe-nez eta jakindriaz jantzia, mito eta ipuin eder guztiak bezala. Baina mitoez ez digute erakusten antzinar




JOXE ARREGI

zer gertatu zen, gaur eta hemen zer gertatzen den baizik, eta etorkizun hoberako bidea nola zabaldu.

Zu eta ni, denok gara Adam eta Eva. Adamek lurrezko esan nahi du; Evak bizidun. Denok gara lurrezko eta bizidun. Eta "Jainkoak" bizi-arnasak esaten digu: "Bizi zaitez, eta zaindu ezazu biziaren zuhaitz izerdia zeuregan eta hurkoarengan. Ez zaitez, bada, jabetu ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren zuhaitzaz, zurea bakarrik balitz bezala, zu bazina bezala ongiaren eta gaizkiaren jabe, irizpide eta neurri. Zure ongia guztien ongi da. Besteen gaizkia zure gaizki".

Ez gara "errudun", ez dugu gaizkia jakinaren gainean eta nahita egiten, inkontziente eta ezjakin garelako baizik. Gaizkileari ez diot, beraz, zigorririk opa, baina erantzukizuna eskatzen diot: jabetu dadila egin duen kalteaz, erantzun dezala ongile bihurtuz. Mundu zauritua ez dute zigorrek onduko, erantzukizunak baizik. Eta sinesten dut ahal dugula, ontasun ongilea baita gure izamen. Edo "Jainkoa".*



Lagundu Mari Domingi
eta Olentzerori umeei
opariak entregatzen!



Zoria, zor

Abraham Maslow psikologo humanistak piramide batean antolatu zituen gizakiaren beharrak. Haren arabera, bost taldetan mailakatu ditzakegu gizakiaren premiak, eta maila batekoak asebetetzeak, hurrengo koskakoak eskuratzeko motibazioa pizten du. Behar fisiologikoak dira funtsezkoenak, eta horien ondoren, segurtasunekoak, sozialak eta estimuzkoak ezartzen ditu, autoerrealizaziora iritsi arte. Ikasleei kontzeptu horiek agertu nizkien egun berrean iritsi zen etxera udaleko gutuna. Bertan, Esklabak-Iturtzulo eremuan egingo diren Babes Ofizialeko Etxeen zozketan parte har-

tzeko eskabidea zetorren. Gizakiaren segurtasun beharra bete-tzeko aukera paregabea.

Testu hau irakurtzen duzuenerako erabakia hartua izango dut, baina aitortu behar dizuet mahai gainean bueltaka dabilkidala ditzosozko papera eta nire buruari promes egin diodala denborak nigatik erabakia hartu baino lehen egingo dudala zerbait. Arre edo so. Erre edo sinatu. Erabakiak hartzea ez da nire indargunetako bat, baina susmoa daukat lehen pausorekin ezagun den amaiera sortu zela.

Galtzeko ezer ez nuela eta, beharrezko dokumentazioa aurkeztea omen zen onena. Bal-

dintzak beteta, paper bat sinatu besterik ez omen dut egin behar zozketan sartzeko. Zozketan nire zenbakia ateratzen bada ezingo omen dut aukera "ikaragarria" galdu.

Nire ikara aurpegiak eta kontraesanek sortutako garriak imajinatzeraz iristen naiz, dirudie-nez, banketxeren bateko gerentearen aurrean egon beharra izango baita istorio honen amaiera zoriontsuena. Mahaiaren beste aldekoak Maslowren piramidean gora egiteak ekarriko didan zorigailtaren urte kopurua zenbatzen didan bitartean, zortekoa naizela sinetsaraziko diot neure buruari. Zoriak zorra opari!*



felipe murillo

Erotikan Plax!

Yamelli Prieto yoga irakaslea-ri egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Yogarekin hobetu al daiteke norbere sexualitatea?

Bai, norberak bere burua onartzea da oinarria. Yogaren bidez, presentzia hartzen hasten gara, gorputza ezagutzen, mugimendua lantzen... Pixkanaka loratzen.

Zure bilakaera erotikoa nola ikusiko genuke yogako 'bisualizazio' batean?

Koloreak ikusiko genituzke. Hasieran beltza, beltzetik grisera ondoren, eta horia, berdea eta urdina amaitzeko.

Ba al dakigu gure gorputza zaintzen?

Gehiago baloratu behar genuke gure buruaren era guztietako zaintza.

Zerk erlaxatzen du Yamelli?

Zuhaitz zahar bateko goroldio eder potol berde hori eskuekin ukitzeak eta usaintzeak [barrez].

Sexu praktika batean egon daitekeen arnasketa erritmoak izan al dezake tokirik yogan?

YAMELLI PRIETO RAÑA

Bai. Arnasketa erritmo guztiak onartzen dira, baldin eta arnasketa guztiak kanporatzen baditugu.

Plan batean, yoga eta praktika erotikoa, zein ordenatan?

Aurrena, yoga, norbere gorputzarekin konektatzeko eta arnasaren bidez tentsioak kanporatzeko. Modu horretan, naturalki irekiko genizkioke ateak praktika erotikolari.

Klitoria ba al da txakra puntu bat?

Bai, bada!

Zer esango zenioke inoiz orgasmora iritsi ez den eta masturbatzen ez den lagun bati?

Izugarrizko abentura dela eta animatzeko.

Yogaz aparte, zertarako eskainiko zenizkioke gorputzari bost minutu gustagarri egunero?

Hanka hutsik ibiltzen.

Horma batean idatziko zenukeen esaldi bat?

Zaindu eta eskertu ama natura!

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688 897 920
Abenduko hitzorduak: hilaren 12an
(16:00-19:00) eta 22an (10:00-13:00).



Adina. 46 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Helduen yoga irakaslea eta etxeko andrea.

Yogako postura bat?

Zuhaitzaren postura. Oreka arieta bat da, zerua lurrarekin lotzen duena.

Gune pizgarri bat?

Perfume denda bat.

Barruko zoriontasuna aurkitzeko gakoetako bat aipatzekotan, zein?

Bizitzari ateak irekita egotea.*





► 'REINING' MODALITATEA.

Jatorria westernean duen 'reining' modalitatean aritzen da Segurola. Hark dioenez, modalitate horretan aritzeko zaldiekin "oso sentibera" izan behar da: "Ez da zaldia inoiz ezertara behartu behar. Are gehiago, riendak flojo-flojo utzi eta ipurdia sartuta, atzeko hankekin arrastan frenatu behar da, beraiek naturalki egiten duten moduan". Argazkian, zaldi hezitzailea 'Amets' zaldiaren gainean, etxe ondoko zelaian.

Zaldiak, hazi eta hezi

Zaldi hezitzaileak dira Unai Segurola eta Edurne Etxabe. Beizaman, bizi diren baserrian, bost zaldi dituzte.

'Reining' modalitatean lehiatzen dira. 📷📹 Nora Alberdi



▲ HASTAPENAK.

Txiki-txikitatik animalien artean bizi izan da Segurola. Osabaren zaldiekin piztu zitzaion haiekiko afizioa, eta orain dela hamar urte eskuratu zuen bere lehen zaldia: 'Sugar' –gaur egun 19 urte ditu zaldiak–. “Zaldi batekin hasi nintzen, gero beste batekin... zaldien afizioa barnean sartuta nuela konturatu nintzenera arte”, azaldu du. Irudian, Segurola txikitan, osabaren zaldietako batekin.

► PASIOA.

Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da 'reining'-a. Dena den, Segurolak dioenez, eguneroko lanarekin konexio berezia sortzen da zaldizkoaren eta zaldiaren artean. Lehiaketetan zaldiak zer heziketa jaso duen erakutsi behar izaten diote epaileari, hau da, doma. Horregatik, zaldiak hezten ordu ugari pasatzen dute Segurolak eta Etxabek. “Zaldiak familiako kide bat gehiago dira”, haien arabera. Irudian, Etxabe zaldi batekin.





▲ 'CUARTO MILLA' ARRAZA.

Edozein zaldi ez da egokia 'reining' modalitatean aritzeko. Seguiolaren eta Etxaberen arabera, Cuarto de Milla arrazakoak dira onenak ariketak-eta ondo egiteko. Izan ere, haien arabera, fisiko egokia eta ariketetarako erraztasuna dute horiek. "Dena den, bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera, zaldi hobeak, prestakuntza gehiago, instalazio hobeak... lor daitezke". Irudian, Seguiola, Etxabe eta horien Oihane alaba, 'Amets' eta 'Lena' zaldiekin.

► ETXEKO ZALDIAK.

Seguiolak 'Sugar' zaldiarekin parte hartu zuen lehen aldiz lehiaketa batean. Hainbat urtez 'Amets'-ekin ibili ostean, bi moxal etorkizunean lehiatzeko prestatzen ari dira gaur egun.





▲► LEHENA EUSKAL HERRIAN.

Azpeitiarra izan zen 'reining' modalitatean lehiatu zen lehen euskal herritarra; hain zuzen ere, 2013an parte hartu zuen aurrenekoz. Seguroularen arabera, baina, gaur egun ere "bakanak" dira horretan aritzen diren euskaldunak. Katalunia aldean modalitate horretan aritzeko joera dagoela azaldu du, eta hara joateko ohitura dutela ere esan du. "Reining'-erako pista egokirik ez dago Euskal Herrian, horretarako lur berezia behar delako. Guk etxean dugu pista txiki bat, Gasteiztik ekarri genuen hondarra, eta etorkizunean gune handiagoa egokitu nahi dugu".



◀ ELKARTEA SORTU DUTE.

Ameriketako Estatu Batuetako NRHA elkartearen filiala sortu dute Espainian. Ordura arte Espainiako federazioak antolatzen zituzten lehiaketekin gustura ez, eta elkarte osatu zuten 25-30 lagunek. Orain, udaberritik udazkenera bitartean hiru proba egiten dituzte: Errioxan, Zaragozan eta Bartzelonan. Aurten, proba horietan lortutako puntuei esker, finalerako txartela lortu zuen Segurolak. Gaur-gaurkoz maila gorenean lehiatzen da azpeitiarra.✴

Azken urteotan apustu etxeek joko areto ugari zabaldu dute han eta hemen, eta Euskal Herria ez da salbuespena izan, ezta Azpeitia ere. Izan ere, joan zen urriaren 30ean zabaldu zituzten RETAbet enpresak Azpeitian egokitu duen gunearen ateak, eta haren irekierak eztabaida herriratu du. Eztabaida ez ezik, alarma gorria piztu du zenbaitengan, eta Elkar-ekin taldeak haren irekieraren kontra presio soziala egiteko kanpaina jarria du martxan.

Talde horrek apustu etxea zabaldu aurretik hasi zituen protestak, eta sinadura bilketa ere egin zuen; hain zuzen ere, 1.636 herritarrek eman zuten apustu etxearen kontrako sinadura. Elkarretaratzea, gaia gizarteratzeko hitzaldiak eta abar egin ditu Elkar-ekinek, eta aurrera begira ere, bide horretan segitzeko asmoa du. Horren erakusle da abenduaren 15erako (19:00) deitu duen elkarretaratzea. Herriko dozena bat eragileren eta talderen babesa jaso du dagoeneko kontzentrazioak.

Apustu etxea zabaldu aurretik sortu zen eztabaidaren erdian, Azpeitiko Udalak ere "kezka" agertu zuen haren irekiera zela eta. Gune horrek sor ditzakeen "ondorio kaltegarriak" sahiesteko, baliabide guztiak eskura jarriko dituela jakinarazi zuen. Gainera, Eusko Jaurlaritzari apustu etxeak Azpeitian sor dezakeen inpaktuaren informazioa eta txostena eskatu zizkion, eta apustu etxeen araudia berrikustea galdegin zion erakundeari.

Apustuen eta jokoaren aferak ertz asko



Irabazteko gutxi

Apusturako afizio handia izan da gurean, baina joerak aldatu egin dira. Alarma piztu dute apustu etxeen eta 'on line' jokoen loraldiak. 🖋️📞 Ane Olaizola eta Julene Frantzesena



ditu, eta askotariko iritziak sortzen dituen gaia da. Uztarría saiatu da gaiaren ertz horiek ukitzen, baina, ahalegindu arren, ezinezkoa izan zaio RETAbet enpresako arduradunekin hitz egitea. Hala eta guztiz, herrira ekarri du pil-pilean den gaia, eta mendeko diren bi herriarrek eta horietako baten senide batekin hitz egin du erreportaje hau osatzeko.

LEKUKOTZAI

||| **Izen-abizenak.** Anonimoa.

||| **Adina.** 61 urte. ||| **Herria.** Azpeitia.

“Bizitzan gauza bakarraz,
damutzen naiz: jokatzearaz”

“18 urte inguru nituenean, noizean behin makina txanponjaleetan jokatzeko hasi nintzen.

Duela 31 urte, ordea, Azpeitira etorri nintzen bizitzera, eta gehiago jokatzeko hasi nintzen. Azpeitia leku berria zen niretzat, eta inguru itxi batekin egin nuen topo. Gainera, euskaraz hitz egiten ez jakiteak zaildu egin zidan herrian integratzea. Ez dakit zergatik hasi nintzen jokatzeko; izan daiteke bakarrik sentitzen nintzelako, itota nengoelako edo zerbait berria probatu nahi nuelako.

Hasieran, igaro nitzakeen egunak jokatu gabe, ez zer ezer gertatzen jokatzeko ez banuen, baina iritsi zen une bat, zeinatan esnatu eta jokatzeko beharra sentitzen nuen. Jokoa-rekin pentsatzen esnatzen nintzen; ohetik jaiki eta zuzenean jokatzera joaten nintzen. Errutina eta beharra nahasten hasi ziren orduan. Gainera, inoiz zerbait irabazten banuen, hurrengo egunean ere irabaz nezakeela pen-

tsatzen nuen; horrek engainatzen ninduen. Baina irabazten ez banuen ere, “beharbada bihar bai”, pentsatzen nuen. Biharkoan pentsatzen kateatu eta irten ezin duzun espiral batean sartzen zara.

Aurpegi bikoitzarekin bizi nintzen garai hartan; etxean urteetan ez zuten jakin jokatu egiten nuela. Beti agertzen nintzen pozik eta zoriontsu, eta guztia ondo zegoen besteen begietara. Barrutik eramaten nuen guztia. Dirua lortzeko, berriz, gezurak asmatzen nituen, eta, ondoren, jokorako erabiltzen nuen. Pentsaezinak diren gauzak egiten ditut dirua lortzeko, eta zentzu horretan, min handia egin diot jendeari.

Egun batean, senarrari esan zioten jokoa ibiltzen nintzela. Une hartan, ohikoa izaten den moduan, esan nuen gehiago ez nuela egingo. Duela sei urte inguru izan zen hori; eta Errenteriako Ekintza elkartera joaten hasi nintzen. Dena den, menpekotasuna ez zen orduan amaitu; senideei esaten nien ez nuela jokatzeko, baina gezurra zen. Jokoa utzita urtea betetzear nintzela, berriz hasten nintzen, baina ez nion inori esaten. Denboraldi bat pasatu nuen modu horretan, baina azken urteetan, kontrola galdu nuen. Egunean 300 euro gastatzera ere iritsi nintzen.

Behin, anaia nagusiari dirua eskatu nion, jendearekin nituen zorrak kitatu nahi nituelako. Zorra kendu, jokatzeari utzi eta kito; horixe nahi nuen. Mila aldiz esaten nion hori neure buruari, baina dirua duzunean... Anaiak emandako 250 euro horiek eskuetan, zera pentsatzen nuen: ‘Zer arraiol!’, eta jokatu egiten nuen. Ondorioz, jendearekin ez ezik, anaiarekin ere zorretan. Egunero ikusten duzun jendea, gertukoa, da min gehien egiten diozuna, eta horrek bihotza puskatzen dizu, baina jokoa indartsuagoa da.

Bost hilabetez Usurbilgo zentro batean egon ostean, orain esan dezaket iazko azaroaren 9an jokatu nuela azkenekoz. Hogeitaz jokoan ibili eta gero, oso garrantzitsua izan da hori niretzat, baina badakit ezin dudala erlaxatu. Izan ere, ludopatok bizitza osoan ibili behar dugu tentuz. Egun, bizitza aktiboa daukat. Senarrarekin bizi naiz, eta adibidez, otordu ederak prestatzen ditut, lehen ez bezala.

Bizitza honetan gauza bakarraz damutzen naiz: jokoa aritzeaz. Senarrak eta lagun batzuek izugarri lagundu didate, eta horiei esker lortu dut aurrera egitea. Jokoa ondo orduoz, ordea, seme-alabekin harremana galdu nuen, eta orain haiekin nuen hartu-eman berreskuratzeko ari naiz.

Borondatea, laguntza handia eta norbere

buruan sinestea behar dira jokoaren menpekotasunik ateratzeko, baina posible da. Zaila izango da, eta min egin diezun jende horri eskatu beharko diezu laguntza. Egoeraz jabetzeko, ludopatak muturreko egoeran ikusi behar du bere burua eta hondoa jo behar du, baina hortik hasiko da bidea egiten. Horrez gain, berriz ez erortzeko eta tentazioak saihesteko bitartekoak bilatu behar ditu”.

LEKUKOTZA II

||| **Izen-abizena.** Enekoitz Aizpuru.

||| **Adina.** 44 urte. ||| **Herria.** Azpeitia.

“Nire bizitza horixe zen: apustua, apustua eta apustua”

“17 urte inguruekin hasi nintzen jokoan. Tabernan elkartzen ginen lagunak eta kartetan jokatzeko ginen. Ez genituen apustu handiak egiten, baina kafearen ordua lagunekin disfrutatu beharrean, kartetan jokatzeko eta apustuak egitea besterik ez nituen buruan. Horrez gain, tabernetan zeuden bingoen makinetan ere jokatzeko nuen, eta hura izan zen nire menpekotasunaren hasiera. Gerora, lagunak kasinora joaten hasi ziren, nik ere probatu nuen, eta zeharo katigatu nintzen. Garai hartan, futboleko jokatzeko nuen, eta entrenamenduetara joateari utzi nion. Edozein aitzakia bilatzen nuen kasinora joateko. Orduan hasi zen nire menpekotasuna indartzen, eta orduan hasi ziren ondorio ekonomiko gogorak azaleratzen. Jokatzeko beharra sentitzen nuen, eta geratu ezinezko gorpil batean sartu nintzen.

Behinola, familiak jakin zuen zer arazo nuen; egoerari buelta eman ezin nion eguna iritsi zen. Ordurako ezkontuta nengoen, eta gau batean ez nintzen etxera itzuli. Goizeko laurak jo zuten, eta jokoan ari nintzen tokira etorri ziren arreba eta osaba. Orduan erabaki genuen zerbait egin behar genuela. Tratamenduan hasi nintzen, baina ez nuen menpekotasuna alboratu. Epe motzean, inguruko guztiak gustura uzten nituen, baina gero berriz itzultzen nintzen jokora.

Tratamenduan nengoela, 2005. urtearen inguruan, jakin nuen kirol apustuen makinak jarriko zituztela tabernetan, eta nire burua berriz aktibatu zen; banekien makinak jartzen zituztenean, jokoan hasiko nintzela. Eta halaxe izan zen. Kirolaria izan naiz, eta kontrolatzen dut arlo hori. Beraz, uste nuen kirol apustuak nire alde egongo zirela. Irabazi edo galdu, orde, hurrengo egunean jokatzeko beharra izaten nuen; irabazten banuen, gehiago ira-



Mirari Bereziartua eta Enekoitz Aizpuru izeba-ilobak Loiolan. ||| **Ane Olaizola**

bazi nahi nuelako, eta galtzen banuen, galdutakoa berreskuratzen.

Garai hartan, familiaren enpresan lan egiten nuen, eta honako hau zen nire egunerokoa: 07:30erako joaten nintzen lanera, baina hara sartu baino lehen apustu batzuk egitera joaten nintzen tabernara. Aurreko gauean pentsatuta izaten nuen goizean makinan apustua egin behar nuela. Apustua eginda ere, nire buruan ez zegoen beste konturik: goizeko apustua nola atera zen pentsatzen egoten nintzen enpresan, eta edozer aitzakia bilatzen nuen handik atera eta begiratzeko; eguerdian, bazkaldu eta beste apustu bat egiten nuen; gainera, garai hartan, korrika ibiltzen nintzen, baina lasterka egin beharrean, tabernara joaten nintzen apustua egitera. Nire bizitza horixe zen: apustua, apustua eta apustua.

Familiak kontu korrontea kontrolatzen zidan, berriz ez nezan jokatu, baina jokariok beti bilatzen dugu dirua lortzeko modua. Nire esku zegoen guztia egiten nuen horretarako: jendea manipulatzeko nuen edo nire gurasoen lantokian dirua lapurtzen nuen, esaterako.

Jabetu, aspaldi jabetu nintzen jokoarekin arazoa nuela, baina uztea asko kostatu zitzaidan. Duela bi urte egin nion benetan jokoari uko. Terapiaren nengoen, baina ordura arte ez nuen sinesten han esandako zenbait gauza; neuk ere zenbait kontu kontatu gabe utzi nituen. Uste nuen jokoaren kontrolatzen nuela, baina terapiaren hasi eta bederatzi hilabetera berriz erori nintzen. Euro batekin hasi, eta lehenengo itzuli nintzen. Azaroaren 29an bi urte beteko dira azkenengoz jokatu nuenetik. Azaroaren 29 hartan, terapeuten bulegoan zeuden emaztea eta izeba, seme gaztearen urtebetetzea zen, baina egun hartan ere ezin izan nion tentazioari eutsi. Emazteak etxetik bidali ninduen, eta orduan egin zuen nire buruan klik. Orduan utzi nuen jokoan.

Hilabetez ingesatu ninduten zentro batean, eta ondorengo zortzi hilabeteak Donostiako tutoretzapeko pisu batean eman nituen. Lau pertsona bizi ginen etxe hartan, eta terapia eta beste ekintza batzuk egiten genituen han. Familia ikusi gabe egon nintzen tarte batean, eta gogorra izan zen hura, bai niretzat, baita familiarentzat ere.



Orain, errehabilitazioaren azken fasean nago, baina badakit gaixotasun hau bizitza osorako dela. Oso ondo aurkitzen naiz, eta trebatzen ari naiz. Lehen, ez nituen barruko sentimenduak azaleratzen, eta zerbait gertatzen bazitzaidan, horiei ez nien aurre egiten. Orain, arazo bat izanez gero, ingurukoekin edo terapeutarekin partekatzen dut. Horrez gain, egoitzetan adinduak zaintzeko ikastaro bat egin nuen iaz, eta hori aurrerapauso handia izan zen niretzat. Izan ere, bizitza osoan guztia eginda eta eskura izan dut, eta autoestimua igotzeko baliagarria izan zen ikastaro hori.

Jokoaren erruz, ondorio ekonomiko latzak eragin ditut, baina horrez gain, duintasuna ere galdu izan dut. Izan ere, gauza ikaragarriak egin ditut. Ingurukoei ere min izugarria egin diet, eta harremanak ere galdu izan ditut. Sentitzen dudana da 25 urte alferrik galdu ditudala jokoarengatik. Dena den, orain ondo nago, baina herrian apustu etxea zabaltu duten honetan, badakit nora ez dudan joan behar. Badakit leku hori pizgarri indartsua dela niretzat, eta, beraz, jakin bada-

kit saihestu egin behar dudala. Apustu etxeei dagokienez, ordea, nire iritzia honako hau da: nahiago nuke halako gunerik ez balitz egongo, baina aukeran, nahiago dut halako makinak apustuetaarako guneetan soilik egotea, eta ez tabernetan. Tabernetatik kenduko nituzke makina guztiak, edozein lekutan baita go jokatzeko aukera. Apustu etxeetan, kasi-noetan bezala, norberak bere buruari sarrera debekatzeko aukera eskaini behar lukete. Dena den, ulertezina da apustu etxeak jolas parkeetatik eta ikastetxetatik gertu jartzea, Azpeitian egin duten bezala”.

LEKUKOTZA III

||| **Izen-abizena.** Mirari Bereziartua (Enekoitz Aizpururen izeba). ||| **Adina.** 69 urte. ||| **Herria.** Azpeitia.

“Gertukoenek motxila handia eramaten dute soinean”

“Gertutik jarraitu dut nire iloba Enekoitzen gaixotasuna. Hasieratik, familiaren laguntza izan du hark, eta kide bakoitza aldi desberdinetan egon da horretan. Etsipenak jota, neuk ere laguntzea erabaki nuen, eta Enekoitz sendatzen ikusi dut. Hain zuzen ere, ikusi dudanagatik esan dezaket menpekotasun horretatik irtetzen dela, baina bizitza osoan zaindu beharreko kontua dela.

Iloba gaixo zegoen bitartean, ariketa moduan honako hau proposatzen nion: ‘Esaidazu jokatu duzula, eta astebetara argitu ieza-dazu egia zen edo ez esandakoa’. Jauzia eman zezan nahi nuen, baina inoiz ez zen gai izan ariketa onartzeko ere.

Menpekotasuna duten pertsonak izugarriko abilezia dute jendea manipulatzeko eta dirua lortzeko. Ez daukanari ere dirua ateratzeko modua bilatzen dute beti. Gaixo horien ezaugarrietako bat izaten da duten mendekotasuna ezkatzea, eta gertukoak ez diren pertsonen eskatzen diete dirua. Beraz, kanpokoek jakiten dute pertsona horrek jokatu egiten duela, baina horiek ez dute nahikoa konfiantza ludopataren gertukoei esateko. Horrek arazoa asko korapilatzen du; izan ere, gertuko jendea izan ohi da gertatzen denaz gutxien dakiena. Gero, jakiten duzunean, gainera, harremana zaildu egiten da; ez duzu konfiantzarik pertsona horrekin. Halakoetan, gaixoa eta gaiztoa bereizten ditut nik. Gaixo zaudenean ez bezala, gaizto zaudenean arazoa ezkatatu egiten duzu.

Nire ilobak abilezia eduki du guztiei gain hartzeko, beharrak horretara eraman duela-

ko. Gaixoak, gainera, oso harro egoten dira behea jotzen ez duten bitartean; gaiztotik jokatzen dute, eta hondoa jotzen dutenean ohartzen dira benetan duten arazoaz. Orduan hasi zen Enekoitz egoerari buelta ematen. Eman beharreko lehenengo pausoa arazoa onartzea da, baina asko kostatzen da hori egitea. Norberak ez badu onartzen gaixo dagoela, ez da ezer konponduko. Egindakoa onartzen eta kalteez jabetzen jakin behar du, ondoren aldaketak egiteko eta horiez gozatzeko jakiteko.

Ingurukoei karga handia sortu zien Enekoitzen egoerak. Lotsa eta beldur handia sentitzen genituen, gaizki ikusita geundena-ren susmoa genuelako. Izan ere, gizartean biziotzat hartzen da gaitza. Gaixoentzat ez ezik, ondorioak handiak dira ingurukoentzat ere, eta haren gertukoenek motxila handia eramaten dute soinean. Gaixoak, oro har, medikamentuen bidez sendatzen dira, baina ludopaten kasuan ez dira sendagaiak behar, terapiak baizik. Norbere burua gutxietsi eta kanpoko magian sinesten duten pertsonak dira jokoarekiko menpekotasuna dutenak; daukatena ez dute onartzen eta ondorioak ez dituzte neurtzen. Horregatik, terapiak balio dute norbere buruarekin beste harreman bat izateko eta berriz ibiltzen ikasteko. Erronka hori oso gogorra izaten da, baina merezi du saiatzea.

Terapietan, gaixok ez ezik, senideok ere parte hartzen dugu, eta izugarrikoa da han gertatzen dena. Bakoitzak barruan daukana hustu egin behar du, eta hori beste batzuen aurrean egitea asko kostatzen da, baina oso lagungarria da. Barrukoa ez bada ateratzen, ezin da garbitu. Askotariko pertsonak joaten dira hara, ez dago profil jakinik, unibertsitate bat da hura; bizitzaren jakinduria ematen dute zentroan. Miresgarria da ikustea arazoei nola egiten dieten aurre. Izan ere, terapietan bere osotasunean hartzen da gaixotasuna, eta kontraste sanoa izaten da gaixok eta horien senideek esaten dutena entzutea, bakoitzak bere bertsioa izan baitezake.

Ludopatia ez da arazo pertsonala, herri eta kolektibo oso baten ardura da, elkar-eraginez garatzen garelako. Herri baten osasuna da bete beharreko lehenengo gauza, eta beraz, horren erantzukizuna kolektiboa da. Jokorako joera goraka doa, eta osasun arazo handiak daude jokoaren bueltan. Serioa hartu behar dugu arazoa, guztiongan eragiten duelako. Nik ez daukat gaixotasun hori, baina bai herriaren osasunarekiko erantzukizuna”.

JULEN SANTAMARIA Virtuss Adicciones zentroko zuzendaria

“Ezin duqu ahaztu Ludopatia gaitz kronikoa eta hilkorra dela”



Julen Santamaria.

|||Menpekotasuna daukat, baina dagoeneko hamalau urtetik gora daramatzat kontsumitu gabe”. Hala aurkeztu du bere burua Julen Santamaria (Donostia, 1971) Virtuss Adicciones zentroko zuzendariak. Hain zuzen ere, orain urte batzuk laguntza behar izan zuen pertsona hori mendekotasuna duten gaixoei laguntzen aritzen da gaur egun. Argi du: jokoarekiko menpekotasuna duten pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora. **Jokoarekiko menpekotasuna duten pertsonekin nolako lanketa egiten duzue?**

Kostatu egiten da menpekotasuna duen pertsonak tratamendua hastea, hori bera ere prozesu bat da. Horixe da ematea gehien kostatzen zaien pausoa. Behin tratamenduan hastea onartzen dutenean, lehen saioetan, gaixotasuna duen pertsona horri azaltzen diogu zer den menpekotasuna, zer den ludotopia edo joko patologikoaren gaixotasuna, zer ondorio dituen... Pertsona horrek duen

menpekotasuna onartzeaz eta aurrera egiteko gogoia izateaz gain, oso garrantzitsua da tratamenduan familia ondoan izatea, bai jarraipena egiteko, bai babesteko, nahiz eta gero gaixoak egin behar duen benetako lana.

Zeintzuk dira tratamendua- ren gakoak?

Menpekotasunei aurre egiteko tratamendu guztiak oso antzekoak izaten dira, eta prozesua luzea izaten da. Ludopaten kasuan, beraienez droga dirua denez, kendu egin behar izaten zaie. Horrez gain, beraien inguru sozialetik aislatu behar dira gaixoak, familiarri zer egin dezakeen eta zer ez esan behar zaio, talde terapiak egin behar dira, baita jarraipen pertsonala ere.

Familiekin nola lantzen duzue arazoa?

Familiak ulertu behar duten lehen gauza da ludopatia gaixotasuna dela eta bere senidea ez dela gizagaldurik. Badirudi jokoarekin arazoak dituen pertsona eta kon-

trolatzen ez duena degeneratu bat dela, baina hori gizarteak jarritako etiketa bat da. Pertsona horiek gabeziak dituzte, disfuntzionalak dira, eta familiek horiek aritzeko gaitasunak galtzen dituzte, gaixoaren desastreen konplize bihurtzen baitira oharkabeaz. Mendekoa den pertsona horren jarrera elikatzen dute senideek, zorraz kitatuta, egiten duena estalita... Gezuraren eta manipulazioaren espiralean sartzen dira.

Noiz da pertsona bat ludopata?

Pertsona batzuek areagotzen joaten den gaixotasun neuronal kroniko bat dute izatez, eta jokoan aritzen diren pertsonen ehuneko jakin batek garatu egiten du gaitza. Noski, bizitzan behin jokatzeko duen pertsona ez da ludopata. Baina alkohola bezala, hain dago banalizatuta jokoak... Mendekotasunez betetako gizarte batean bizi gara, eta esaten dute erregulatuta dagoela, baina hori ez da horrela. Izan ere, 15 urteko nerabe batek

erre, edan eta jokatu egiten du, nahi duena egin dezake. Zer gertatzen da pintxo-potearekin? Harritu egiten al zaitu zure seme-alabek kalean botiloia egiteak? Bere gurasoak ikusi ez ditu ba kalean lagunekin garagardoa edaten! Muturrera eramandako adibidea da, baina...

Menpekotasuna duten pertsonak nola iristen dira zuengana?

Kasu gehienetan, oso gaizki. Lur jota iristen dira afektiboki, ekonomikoki, sozialki, lanari dagokionez... Hona iristerako, arazo oso potoloak izaten dituzte; izan ere, normalean, hasieran, norbera saiatzen da arazoari irtenbidea ematen. Halakoetan, ordea, arazoa txikiagotzen dute autoengainuaren bidez, laneko arazoekin edo antsietatearekin mozorrotzen dute menpekotasuna... Hori guztia kontsumoaren eragina da. Behea guztiz jo arte oso zaila da pertsona horiek aurrera egitea. Ludopaten kasuan oso garrantzitsuak dira medikuen jarraipena eta jarraipen psikologikoa, oso egoera zahargarrian izaten direlako, antsietate kuadro oso handia izaten dutelako eta edozein emozio kudeatzeko zailtasunak izaten dituztelako. Menpekotasuna duten pertsonak, normalean, manipulatuak eta gezurtiak izaten dira; ludopatak are gehiago.

Zergatik diozu hori?

Kokainazaleek edo alkoholikoek baino gezur gehiago esaten dituzte ludopatek, jokoarekiko menpekotasuna den modukoa delako. Estrategak izaten dira, beren bizitza joko iraunkor bat da, eta oso ohituta daude gezurrak esatera. Gezurra bera beste patologia bat da.

Errepikatzen al da ezaugarriak gaixoetan?

Bai, gezurrak, manipulazioa, sintomak, eraginak, bizitza bikoitza... Gainera, ludopaten ehuneko handi batek drogak ere kontsumitzen ditu. Horiek zabaltzen diete jokorako atea.

Azken urteotan igo egin al da

jokoarekiko menpekotasuna duten pertsonen kopurua?

Bai, eta kopurua ez ezik, aipatzekoa da jokoan hasten direnen adina: orain, askoz ere lehenago hasten dira gazteak jokatzeko. Nerabezaroan apustuekin hasten dira, eta hori gertatzen da arrisku pertzepziorik ez dutelako. Gazteek jokoa ez dute arriskuarekin lotzen; izan ere, jokoarekin arazoak dituen pertsona makina txanpon-jaleekin lotu izan da, bingoarekin, kasinoarekin... Baina horiek lehenengo kontuak dira. Gaur egun, kirol apustuak horiek adinako arriskutsuak dira; gaztetxoek esku-eskura dituzte Internetarako sarbidea, makinak, mugikorrak... Basakeria bat da; adibidez, pilota partida bat ikustea nahikoa da lau apustu etxeren publizitatea jasotzeko. Mezua nahi gabe sartzen digute.

Apustu etxeek indar handia hartu dute.

Bai, eta horien gorakada jokorako eskaintzen duten erraztasunak

eragin du. Medikuek diote menpeko bihurtzeko aurretiazko joera genetikoa dutela heritarren %15ek, eta horri arrisku faktoreak gehitu behar zaizkio. Adikzioak saihesteko gakoa prebentzioa da. **Nola lortzen dute jendea jokora erakartzea?**

Joko enpresak industria bat dira, eta begi bistarako oso kanpaina ikusgarriak egiten dituzte. Ikusi besterik ez dago non zabaltzen dituzten joko aretoak, zer mezu zabaltzen dituzten, nola zirikatzen dituzten herritarrak... Zerbait dibertigarria bailitzan saltzen dute jokoa, agian aberastu egingo zarelako esaten dizute, eta gainera, hori guztia Rafa Nadal eta Cristiano Ronaldo bezalako pertsona erreferenteek esaten badute... Ez dakit nola ez duten esku-hartzerik egiten. Drogomenpekotasunari lotutako politika oro aldatu behar litzateke, baina egin daiteke eta egin behar dute, gizarteko arazo handi bat delako eta harago joaten ari delako. Egia esan, osasun

sistemak ez dakit nola jasan behar duen gertatzen ari dena; jende ugari egongo da gaizki, eta tratamendua behar du, bestela hil egingo delako. Ezin dugu ahaztu horretaz ari garela hizketan: gaixotasun kronikoa eta hilkorra da ludopatia.

Errehabilitatutako ludopata batek nola saihas dezake apustuen tentazioa?

Benetan errehabilitatu den pertsona batentzat ez da tentazioa. Pertsona horrek onartu du arazoa, eta indiferentzia sentitzen du eskaintza horrekiko. Noski, alderik zailena da eguneroko bonbardaketa jasatea. Gaixoarentzat unerik gogorrena da profesional batek zentro batean ingesatzeko esaten diona; izan ere, mundua errotzen zaio gainera, eta ingurukoek jakingo dutela eta zeinen gaizki dagoen pentsatzen hasten da. Baina, finean, horixe da errazena, mikromundu batean sartzen zarelako, eremu hori ez delako errealtatea eta oso babestuta zaudela-

ko. Zailena gizartean egotea, bizitza ona izatea eta kontsumitu gabe zoriontsu izatea da.

Egun droga "gogorrekiko" menpekotasunearekin alderatzen da jokorako adikzioa.

Niretzat ez dago droga gogorrik eta bigunik; drogak legalak eta legez kanpokoak dira. Zuk badakizu erretzen, edaten, esnifitzen edo jokatzeko ari zarela, baina zure garunak ez du bereizten. Dependentsia garatu duten pertsonak jasaten dituzten ondorioak antzekoak dira, pertzepzioa bera da. Horrekin zerikusi handia du estigma sozialak, etiketak jartzen direlako. Gaur egun, ordea, asko aldatu dira menpekotasuna duten pertsonen profilak: mendekoa den pertsona ez da 70ko hamarkadan lurrean etzanda zegoen heroinazalea. Orain edozein substantzia kontsumitzen duen pertsona edo ludotapa ezin hobeto xertatuta dago gizartean. Baina arazo bat dauka.*

 **Julene Frantzesena**

MILAR LARRAMENDI

Exotresna elektronikoa



- ELEKTRONIKAREN ALKATZARNA
- SMART RETAIL PANTAILA BATAITZKO EROSKETA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIRIKATZE GESTIO INTEGRALA
- ODBA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus ON-LINE EROSKETAK



608 313 047 (Etxetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrenal

MILAR

Cooking&Chef

Sukalde Gunea



Julio Urkio etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

Xabier Munibe 11 | Liburutegi ondoan | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus

Saskiaren bi aldeak

Herritarren erosketa ohiturak antzekoak dira hilero, baina kontsumoak gora egiten du Gabonetan. Erosleen kexak ere gehiago izaten dira. 📝📍 Maialen Etxaniz

B

ada urteko sasoi bat ohi baino gehiago jaten eta edaten dena. Salto-kiak argiz betetzen direna. Haurrak denetari-ko opariak eskatzen hasten direna eta zenbaiten poltsikoak husten direna. Garai hori da Gabonetako ospakizunena. Baina zer erosten da, oro har, Gabonetan?

Herritarren kontsumo ohiturak zeintzuk diren ezagutzeko asmotan, erosketa joeren gaineko galdetegi bat prestatu zuen Bertan merkatarikari elkarteak duela urtebete inguru. Elkarteko teknikari Xabier Aldalurrek (Azpeitia, 1990) azaldu duenez, herritarrek urtean zehar dituzten joerak –egiten dituzten erosketak– eta Gabon garaikoak antzekoak dira. “Sasoi horretan aldatzen den bakarra da, oro har, kontsumoa areagotzen dela, gizarteak barneratuta dituen ohiturak tarteko: Olentzerori eta Errege Magoei eskatutako opariak, Gabonen bueltan egin ohi ditugun bazkariak eta afariak...”, azaldu du Aldalurrek. Osterantzean, “kontsumoaren gorakada” horren barnean egiten diren erosketen ezaugarriak ere “gutxi” aldatzen direla dio, urtean zehar egiten direnekin alderatuta.

Zer eta nola erosi?

Herritarrek produktuaren arabera hautatzen dute erosketak non egin. Hala dio Aldalurrek: “Kontsumo ohituren galdetegian jasotako emaitzen arabera, egunero erosten diren produktuak, hala nola jatekoa –haragia, arraina,



fruta, ogia...— eta edariak, Azpeitian erosten dituzte herritarrek gehienetan; saltoki txikietan zein handietan. Azpimarratzekoa da pentsatzen duguna baino gehiago erosten dela herriko denda txikietan. Aldiz, horren ohikoak ez diren jakiak —pasta, zerealak...— supermerkatuetan erosteko joera dute herritarrek”.

Ohikoak ez diren erosketei dagokienez, “bestelakoa” da egoera, Aldalurren arabera: “Altzariak, arropa, denetariko gailu elektronikoak... Horiek guztiak herriko kanpo erosteko joera dago, merkataritza zentroetan zein hiri-buruetan. Kanpo saltzaile horien artean dago Internet, gaur egun, denetariko produktuak gero eta gehiago erosten baitira sarean”.

Internetek herritarren kontsumo ohituretan “aldaketa handiak” eragin dituela esan du Bertaneko teknikariak. Horrek “kezka” sortzen die herriko merkatariei: “Inongo hausnarketarik egin gabe, inertziaz hartu ditugu gizartean errotutako kontsumo ohitura horiek. Adibide argia da Internet bidez erosketak egiteko hartu dugun ohitura. Aldaketa horrek eragin ditzakeen ondorioez ez dugu hausnartu. He-

rriko saltokiak albo batera utzi eta Internetez erosten jarraitzen badugu, herriko merkatariek dendak itxi beharko dituzte”, adierazi du Aldalurrek. Horren harira, Europara begira jarri da: “Europako saltoki kopuruaren batez bestekoari erreparatuta, mila biztanleko zortzi denda daude. Azpeitian, aldiz, mila biztanleko hamalau saltoki edo denda txiki ditugu. Logikak erakusten du Europako gainerako herrialdeetako joerari jarraitzen badiogu, herriko saltoki txikiak galtzen joango direla”. Egoeraren “larritasunaz” jabetuta, herritarrek gogoetara bultzatu nahi ditu Bertanek.

Eguberrietako saskia

Gabonetan batez ere ezohiko materialak edo produktuak saltzen badira ere, Eguberrietakoa garai “oparoa” izan ohi da harategientzat eta arraindegientzat. “Oraindik, Gabonetako bazkari-afariak etxean edo soziedadean egiten ditugu. Hemen ez dago jantokietara joateko ohiturarik oraindik, eta bertako produktuak erosteko joera dugu; herriko dendek asko nabaritzen dute hori”, azaldu du Aldalurrek.

Saltokientzat Gabonak sasoi “garrantzitsua” direla jakitun, abenduan erosketa kanpaina “berezia” egiten saiatzen da merkatariek: “Saiatzeko gara Eguberrietako kanpaina bereziki erakargarri egiten, Gabonetan horren ohikoa den kontsumo igoera hori Azpeitian jazo dadin”. Merkatarien xedea saltzea den arren, kontsumo arduratsua sustatzeko kanpainak ere egin izan dituztela kontatu du Aldalurrek: “Elkar-ekinek bigarren eskuko azoka antolatu izan duen aldietan, elkarteak zenbait saltokik beren materialak dohaintzan eman izan dituzte, behar zutenek han eskuratzeko aukera izan zezaten”.

Behin Gabonak igarota, nola jakin egindako kanpainak fruiturik eman al duen? Aldalurrek azaldu duenez, Azpeitiko dendariak ez dute Eguberrien ostean baloraziorik egiteko ohiturarik: “Azpeitian ez da egiten, baina Gipuzkoako merkatarien elkarteak egin izan ditu azterketak, eta ateratako datuen arabera, tokian tokiko salmentak beheraka doaz”.

Orokorrean, Gabonak dira kontsumoa maila gorenera iristen den sasoiak, baina bada beste aldi garrantzitsu bat ere: beherapenen garaia. Hala dio Aldalurrek: “Zenbait sektoretan beherapenenak oso garrantzitsuak dira, eta badute Gabonekin lotura. Sasoi batean, legez debekatuta zegoen data jakin baten aurretik beherapenak egitea; dendek ezin zuten beherapenik egin urtarilaren 7a eta uztailaren 1a baino lehen, hau da, neguko eta udako denboraldi amaierari dagozkien datak igaro

arte. Duela bi urte inguru, ordea, bertan behera gelditu zen indarrean zegoen lege hori. Ondorioz, gaur egun, edozein unetan egin ditzakete dendariak prezio murrizketak”.

Beherapenenek saltoki txikiei “kalte handia” egiten dietela uste du Bertaneko teknikariak: “Egun, saltoki txiki askok elkarren artean ikusten dute konpetentzia, eta, ondorioz, horiek ez dute elkarlanik egiten, beraien kalterako. Saltoki batzuek beherapenak aurreratzen dituzte, ondoko dendak baino gehiago saltzeko grinak bultzatuta. Baina beherapenak aurreratzen badituzte, materiala prezio murriztuaren eskaintzen dute Gabonetan, eta horrek irabazi aukeren tarteak jaisten die saltoki txikiei”. Horregatik, sektore berekoak diren saltokien arteko borroka da “arazorik handienetakoa bat” Aldalurren aburuz: “Dendarien artean sortzen den konpetentzia elkarri harriak botatzea bezalakoa da”.

Herritarren kexak

Herriko merkatariek harreman zuzena dute erosleekin urte osoan zehar, eta “gertuko” harreman hori azpimarratu du Aldalurrek. Izan ere, haren ustez, gertutasunak konfiantza eman diezaioke bezeroari. Hartu-emanazuzeneko izatean, bezeroei laguntzea dagokie saltzaileei, baina baita kontsumitzaileen kexak entzutea ere. “Dena den, bezeroen kexek ez badute loturarik merkatariek elkarteak antolatutako promozio kanpainekin, saltoki bakoitzaren ardura da bezeroekin harremanetan egoitea eta kontsumitzaileak asetzeta”.

Baina zer egin Internetez erositakoa dagoen lekura iristen ez bada? Zer egin telefonoren ordainagirian espero ez diren zifrak irakurtzeko gero? Azpeitian bada bezeroaren arretarako bulego bat: KIUB. Sindikatu Zaharreko bigarren solairuan dago, eta bertako teknikaria da Mila Urzelai (Azkoitia, 1970). Hark azaldu duenez, Eguberri garaian jasotzen dituzten merkataritza lotutako kexa gehienak: “Kontsumo ohiturak aldatu direla ukalezina da, eta horren adibide garbia da urtean zehar ez dugula jasotzen merkataritza arloko erosketen inguruko kexarik. Jasotzen ditugun dei gehienak Internetez egindako erosketak erreklamatzeko izaten dira. Gure ardura da bezero horien zalantzak argitzea eta arazoak konpontzeko aholkularitza ematea”. Horregatik, uste du gertuko dendetan edo ezagunak diren saltokietan erosketak egitea “fidagarriagoa” dela. Dena den, produktuak herrian erositako edo kanpora eskatuta arazorik egon ez dadin, kontsumitzaileak “arduraz” jokatzeko ezinbestekoa dela dio. ✱



Depedro Azpeitira bueltan

Abenduaren 15ean eskainiko du kontzertua musikariak, 23:00etan hasita. ‘Todo va a salir bien’ diskoa aurkeztuko du. Haren aurretik agertokian izango dira Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola. 🍷 J. Frantzesena

Depedro abeslari eta gitarra-jotzaileak *Todo va a salir bien* disko berria aurkeztuko du abenduaren 15ean, larunbatez, Sanagustin kulturgunean. Haren aurretik, baina, Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola igoko dira agertokira, kulturgunea blues melodiez girotzera. 23:00etan hasiko dira emanaldiak, eta dagoeneko salgai daude kontzertuetarako sarrerak Sanagustin kulturgunean nahiz *Kulturaz.eus* webgunean: aurrez, hamabost euro ordaindu beharko dira; egunean, bertan, berriz, hamazortzi euro.

Jairo Zavalak –Dapedro du izen artistikoa– hainbat abeslari ezagunen kolaborazioarekin osatu du lan berria. Bilduma horren grabaketan parte hartu dute, besteak beste, Luz Casalek, Amparo Sanchezek, Fuel Fandangok, Izelek, Jairo Zabalak zein Coque Mallak.

Jon Gurrutxagak, berriz, *Kateak* diskoa aurkeztuko du abenduaren 15eko emanaldian, Urbil Artolaren laguntzarekin. Musika-gintzan bi hamarkada betetzeko bidean da Jon Gurrutxaga; izan ere, Arima Beltza taldean hasi zuen ibilbidea, eta geroztik, hainbat musika proiektutan parte hartu du elgoibartarrak azken urteotan. Hain zuzen ere, 2010ean *Jon & Sugramas* diskoa kaleratu

The logo for DATUAK (Dinas Tenaga Kerja dan Pengawasan Industri Kabupaten Kutai) is located at the bottom left of the page. It features the word "DATUAK" in a large, bold, blue serif font. To the right of the text is a graphic element consisting of a series of vertical bars of varying heights, resembling a stylized bar chart or a modern architectural facade, in a lighter blue color.

||| **Zer.** Depedro eta Jon
Gurrutxaga. ||| **Eguna.** Hilak
15 (zapatua).

III Ordua. 23:00

III Tokia. Sanagustin
kulturgunea.

III Antolatzailea. Kulturaz kooperatiba.

|||DEPEDRO||||

2. aldiz. Jairo Zavala –Dapedrok– bigarren aldiz igoko da Sanagustin kulturguneko agertokira; izan ere, orain bi urte pasatxo ere kontzertua eskaini zuen bertan.✱



Depedrok 2016an Azpeitian eskaini zuen kontzertuko irudia. || **Alberto Beloki**

zuen, eta handik lau urtera *Hitz
lauz* lana.

Bigarren aldia

Abenduaren 15ekoa ez da Depedrok Azpeitian eskainiko duen lehen kontzertua; izan ere, 2016ko urrian ere Sanagustin kulturgunean izan zen musikaria. Orduko hartan *El pasajero* diskoa aurkeztu zuen herrian, kulturgunea jendez goraino zela.✱

|||BESTERIK|||

1 'Jainkoak ez dit barkatzen' lana

Jainkoak ez dit barkatzen ikus-entzunezkoaren emanaldia eskainiko dute, eta Josu Martinez egileak solasaldia eskainiko du.

|||**Eguna.** Abenduak 19
(asteazkena). |||**Ordua.** 21:00

|||Tokia. Soreasu antzokia.

||| **Antolatzailea.** Kulturaz kooperatiba.

2 Txapelen bertso saioa

Bertsolari ezagunak izango dira oholtzan: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Aitor Salegi, Andoni Egaña eta Alaia Martin. Haritz Etxeberria *Ministro* ariko da gaiak jartzen.

||| **Eguna.** Abenduak 20
(osteguna). ||| **Ordua.** 22:00

||| **Tokia.** Soreasu antzokia.

|||**Antolatzailea.** Erniarraitz bertsozale elkarte.

3 Santo Tomas eguna

Egun osoko festa eguna izango da, eta ekitaldi ugari egingo dute, hala nola pilota finalak, herri kirolak, musika emanaldia eta dantza txapelketa.

||| **Eguna.** Abenduak 21
(ostirala).✖

|||Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Koh Tao 
OSAGARRIAK
Foua Iaitidag, 3 • Tel: 699 688 193
20730 AZPSTIA (Ghoukag)

ostadar optika
OPTIKAR - OPTOMETRISTAR

*Jose de Arizpe, 17
Tel. 943-810654
AZPETA*

*Ibui Oado, 28
Tel. 943-350445
AZKOITA*

Xabier
magoak

Pinturak eta Parket Laminatuak 

Pablo VI. 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

Irati: hain hurbil, hain urrun (I)

Gure Amazonas txikia da Iratiko oihana, baina agerikoa da, ene aburuz, jende askok ez duela ezagutzen.

Iratira iritsi nintzen lehen aldia ez zen bate-re samurra izan. Negua zen eta aterpetik lau kilometrora gelditu zitzaigun autoa, elurragatik. A ze hasiera! Oinez iritsi, ilunak harrapatuta, lur jota, afaldu eta ohera. Baina... hurrengo egunsentian, sinestezina zen talaiatik gure aurrean ikusten genuena. Pagoek, hostoz biluzik baina geruza zuri finez estalirik, apaintzen zuten baso zabala. Edertasunaren erdian harrapatua sentitzen zinen. Goizeko isiltasunak berak areagotu egiten zuen oiha-naren dotorezia infinitoa.

Harrez gero, urte gutxitan egin dut kale. Bide batez, saiatu naiz lagunei ere erakusten hain gertu daukagun altxorra. Zenbat pasadizo, gertaera, istorio...

Tourra, Txata, Haritz Odriozola...

Tourra Pirinioetatik pasatzen zela eta, lehen eguna eta gaua Iratin igaro genituen behin. Ilunabarrean kanpadenda zabaldu, 'tia' Norbertaren gisatua jan eta etzateko prest, erre-kastoko ur-xuxurla entzunez. Baina... Lagun Joxek, kokotea harraskatuz, supituan: "Hi, este..., zea..., esto..., mantie..., e..., mantie". Zera, manta etxean ahaztu! Ordainetan, zabor poltsa erraldoitik etxeko zapatilak, sandaliak, bizikletako oinetako bereziak, mendirako bota handiak eta kaleko zapatilak atera zituen. A ze nolako barre eztanda gaueko isiltasunean!

Beste batean, abuztuko oporraldian, perretxikotara hurbildu ginen Iparraldeko Irati aldera. Eta Bagargiko mendateko tabernara iritsi ginenean, bat-batean: "Aiba. Haamen noarbetarrak. Ze eiten dezute? Perretxikuen truke, afaiye eta ostatue gure kontura. Kar, kar, kar". Hura poza. Txata azpeitiarra zen. Errefuxiatu batzuekin opor egunak pasatzera joanak ziren alokatutako etxolara. Afaria di-bertigarria eta luzea izan zen. Haiek Azpeitiko



luis gurrutxaga

III **Eta Bagargiko tabernara iritsi ginenean, bat-batean: 'Aiba. Hamen noarbetarrak. Zer eiten dezute?'**

eta bailarako berriak jakin nahi, gu euren bizi-tzaz galdezka. Biharamona gogor samarra gertatu zen, baina aurkitu genuen erre-medioa. Bero sapa saihesteko, Kakuetako ar-roian murgildu eta han egon ginen, *kietoparao*, geure onera etorri arte.

Baina tristura ere ekarri digu Iratik, Ori menditik, zehazki. "Ai, Ori! Hi, oihan erdian errege, ahaltsu, harro, erronkari". Eder; al-dian-aldian, orde, anker. Haritz Odriozola mendizale azpeitiarra heriotzak harrapatu zuen Oriko malda izoztuan duela hamar urte, neguko egun malapartatuan. Oroimen bikoitza utzi zidan Haritzek. Bata mutikotakoa, ikasle ezagutu nuenekoa; baketsua, onbera, irribarre pausatua eta gozoa zuen. Bestea, zendu baino hiruzpalau egun lehenago utzi zidana. Ibai Eder urtegi gurutatu ginen biok, hura laisterka eta ni oinez, mantso. "lep", "kaixo", agurtu ginen. Mendizaletasuna zuen pasio eta pasio horren alde lana egin zuen Lagun Onak mendi bazkunaren lehen-dakari kargutik. Gogoan haugu, Haritz.

Badut *Iratiko Robinson Crusoe*ren kontaketa bat, istorio benetan bitxia, baina hori hurrengo atalerako utziko dugu.✱



HITZ GEZIDUNAK

	Ekaina		Errusian sortua		Arabako udalerria		Eguneroko jakia		Arerioa, etsala
	Deitura		Norat atzizkia		Legea		Bokala		
	Su bizia						Izquierda Unida		
	Orga mota						PL, erregai beltza		
Ez gogorrak		Lituaniako							
Izena		Kisu labe							
					... kiskaltzen du			Potasioa	
					Musika estilo			Segada	
Eraikuntza makina							Edo		
Enborraren mamia							Interjekzioa		
			Musika nota			Ote mota			
			Bihi, garau			Norat atzizkia			
Ez da gaztelera			Aurreko hizki						
Hedadura			Bokala						
							Gipuzkoa-ko herria		
							Bokala		
Modu atzizkia			Esan behar den hori						

Egilea:

Luma

* Aizkolarari azpeitiarra

SUDOKUA

2	3				4	9		7
								6
			2	6		3		5
				5	3		1	9
3	7		1	9				
6		9		8	5			
7								
1		8	3				9	2

16

Partigiano

ETXERA ERAMANGO DEZUGU

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA

Tel: 943 08 09 13

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Labeak. 2. Zuhaizpeko edo bestelako babesgune. Beldur handia. 3. Afrikako ibai luzeena. Ate inguru. 4. Ozta. Paregabea. 5. Gure herriko auzoa, baserriez josia. 6. Kontsonantea. Kilometroa, labur-labur adierazita. Nafarroako udalerria, Urumealdean. 7. Ornodun urlehorrak. Ergatiboaren marka. Kontsonantea. 8. Trebeak, abilak. Bokak errepikatua. 9. Gelaren erdian. Hunki. Ardi, hitz elkar-tzeetan. 10. Astinaldia.

Goitik behera

1. Gure herriko auzoa, elizarik ez duen bakarra, bertakoen esanetan. Euskal Herria, labur-labur. 2. Hegazkin, aireko. Asko, ugari. 3. Litzatekeenari baina ez denari dagokiona. Kontsonantea. 4. Zoro. Baztango herria eta gaztelua. 5. Harrapa ezak! Zilarraren ikur kimikoa. Fruitu tropikal. 6. Bokala. Samoako hiriburua. Gure eskualde bereko udalerria. 7. Pluralean, musika tresna. Kontsonantea. 8. Astroak, argizagiak. Anno Domini. 9. 2018. urtean. Gaixo. 10. Portua. Aramaioko elizatea.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK

BIDALTZEKO EPEA. Abenduak 18 (asteartea) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behe (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

●	O	K	E	T	A	S	E	●	I	K	●
A	I	A	●	A	R	E	L	A	B	A	Z
I	K	Z	I	R	R	U	A	●	O	N	●
R	A	R	●	A	L	A	●	A	R	U	Z
A	L	A	●	A	I	B	A	R	A	G	●
K	●	K	A	U	S	●	L	E	K	I	M
R	A	R	I	A	N	I	A	R	●	B	●
U	I	●	A	R	A	R	A	G	●		
A	G	A	N	A	R	A	R	A	L	A	
●	O	●	A	●	E	●	B	●			

SUDOKUA

2	6	4	9	2	6	3	7	6	3	8	5	1
7	4	3	9	2	1	6	5	8				
6	2	9	4	8	5	7	3	1				
3	7	5	1	9	8	2	6	4				
9	8	1	6	4	2	5	7	3				
4	6	2	7	5	3	8	1	9				
8	1	7	2	6	9	3	4	5				
5	9	4	8	3	7	1	2	6				
2	3	6	5	1	4	9	8	7				

|||UZTARRIAREN AZAROKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Mikel Belar
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 211. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

ELKARRIZKETA ||||| Lorea Etxeberria pailazoa

“pertsonei irribarre eginaraztea zoramena da niretzat”

|||| Lorea Etxeberriak (Azpeitia, 1993) eman zion bizia Lore Kolore pertsonaiari. Umoretik edaten badu ere, zenbait balio gerturatu nahi dizkie haurrei. Atsedean hartze-
ra doa.

Nondik jaio zen Lore Kolore?

Ipuin kontalari hasi nintzen Azpeitiko liburutegian, eta hainbat emanaldi eman nuen. Dena den, Lore Kolore ez zen jaio Zumaia San Telmo jaia iritsi ziren arte. Festa herrikoien batzordeko lagun batek txosnagunean haurrentzat zerbait egitera animatzen al nintzen galdetu zidan; ezetz esaten ez dakidanez, animatu egin nintzen. Banekien festetako txosnagune batean ez zuela ipuin kontaketa formatuak funtzionatuko. Horregatik, beste emanaldi mota bat prestatzen hasi nintzen, ez baitzat irudimenik falta. Argi nuen haurrek izan behar zutela protagonista eta horiek ikuskizunean parte hartu behar zutela.

Nola eman zenion forma pertsonaiari?

Emanaldiak lotuta nituela aprobetxatuta eta haurrekin egoteko



Lorea Etxeberria Lore Kolore. ||||| Maialen Etxaniz

aukera nuela jakitun, zenbait balio sartu nahi nituen ikuskizunetan; ez nuen nahi tuntunarena egitera mugatzerik. Lore Kolore izenarekin jolastuz, kolore bakoitzarekin balio bat lantzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen. Ikuskizunetan azaltzen nuen Lore Kolore Milakolore izeneko planeta batetik datorrela, eta han denek dutela koloretako bihotza. Milakolore planetan sei lurralde daudela, han jendea koloretsu janzten dela, bertan bizi diren pertsonak denetariakoak direla eta denek koloretako bihotza dutela kontatzen nien haurrei.

Pailazoa izanagatik, ez duzu umorea soilik jorratzen?

Beti saiatu naiz lekura egokitzen, eta antolatzaileei galdetu izan diet zerbait zehatza egiterik nahi zuten. Izan ere, ez dut arazorik egoeretara eta gaietara egokitze-ko. Urrestillako San Joan festetan, esaterako, emanaldi berezia eskaini nuen; urrestildarra izanik, mimoz prestatu nuen emanaldi hura. Euskal mitologiari egin nion keinu, eta sorginen istorioak kontatu nizkien haurrei. Motxiladun umeen gaia ere jorratu dut, nahiz eta gaia delikatua den lantzeko.*

|||| Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK |||||

1730

Kanpoko txakolina salgai.

Frantzisko Inazio Aldalur sarjentu nagusiak kanpoan erositako txakolina herrian saltzeko baimena eman zuen; bertakoa soilik saldu zitekeen ordura arte.

1900

Azoka Plaza estalia,

enkantera. Azoka Plaza estalia enkanterean jartzeko baldintzak onartu zituen Udalak

2010

Ahotsak. 'Azpeitiko ahotsak' proiektua aurkeztu zuten.

||| Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK |||||



Gorka Alberdi ekologista.*

KIMU BAT
GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun
iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako
eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA

Astun ez sentitzeko NAGORE AZPIAZU Mekanografia irakaslea

Ondo dakizu lekaleek zer garrantzia duten osasunean; alde batetik, dituzten zuntzengatik, mineralengatik eta bitaminegatik; eta, bestetik, dituzten proteinengatik. Astean bi, hiru edo lau aldiz jan ditzazkegu lekaleak, baina jende askori kalte egiten diete, digestio pisutsuak eragin eta haizeak sortzen dituztelako. Hain zuzen ere, lekaleek duten zuntz kantitateagatik eta karbohidrato mota batzuk digeritzeko zailagoak direlako gertatzen da hori.

Hona hemen lekaleek sortze dituzten arazoak sahisteko gomendio batzuk: kantitate txikiagoa prestatu, poliki jan eta ondo murtikatu; izan ere, horrela errazagoa da elikagai horiek ondo digeritzea. Horrez gain, probatu lekale desberdinak, hala nola lentejak, garbantzuk, babak... Lentejak dira gorputzan ondoen onartzen dituenak. Bestalde, kome ni da lekaleak hamabi bat orduz beratzen jartzea, tarte horretan ura bitan aldatzea eta ur horrekin ez egostea. Gainera, zenbait espeziak digerigarriago egin ditzakete lekaleak; besteak beste, kuminoak, erramuak edota iltzeak. Lekaleak trituratzeak ere lagundu dezake, baita makal egosteak nahiz garbi eta arin sukaldatzeak ere, askotan languntzaileak -txorizoa eta urdaila- izaten baitira errudun nagusiak.

A, eta gogoratu: gozatu!*



1. XXI. mendean, mekanografia?

Ez dirudien arren, gero eta beharrezkoagoa da.

2. Zertarako?

Gero eta lan gehiagotan erabiltzen da ordenagailua. Mekanografiak abilezia eta azkartasuna ematen ditu.

3. Ikasteko gakoa?

Jolas moduan hartzea.

4. Umeek erraz ikasten dute?

Saiatuz gero, lortzen dute helburura iristea.

5. Zuzentasuna ala azkartasuna?

Lehenengo zuzentasuna.

6. Teklarik zailena?

Beheko ilaran daudenak.

7. Ariketarik konplexuena?

Pantailan teklatura ikusi gabe egiten den lehena.

8. Hatz potoloekin...

Gehiago kostatzen zaie.

Ane Olaizola

aitziber aizpuru

Euskar! Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Lamiak: 943 15 16 40
Ekain
ALAITARI KLINA

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Araoa, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

IRENE ALTUNA
LOIOLA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialunacenda.com

Alar
merleria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

ORDULARI
Jose de Arce, 10
Tel. 943 81 02 44
20730 AZPEITIA

Luba
Abokatuak
Fiskal
Gestioak
Gestioak
Fiskal administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel. 943 157 422 Fax: 943 157 372
Euzko Bidea, 41. 1. planta 20730 Azpeitia

KIRURI
JATETxea
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 00 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA
ONBEN
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 18:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arce kalea, 3
943 81 28 08
arcediburu@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik



1. Angel, txuletak erretzen. **2.** Arakistain-Olaizola sendia: zutik, atzean, ezkerretik eskubira, Fernando, Jexux, Martin eta Javier; aurrean, Angel, Fatima (gurasoen artean) eta Luxiano. **3.** Etxekoak eta bezero-lagunak, Aitzakin: Auntxa, Fernando, Riki Asurabarrena, Jexux, Luxiano...



Aitzaki, xarmaz beteta

Duela 25 urte itxi zuen Arakistain familiak Errebaleko sagardotegia, eta aro bat harekin. 📌 Mailo Oiarzabal

Bustinzuriko Errebalean, Pikuaneko aurrean, orain etxe berriak dau- den tarte horretan, Artetxenkoaren kontra, zegoen Aitzaki. Eskailera maila batzuk jaitsi, eta aitzakia gutxi zuten parrilan erretako hara- giak eta arrainak dastatzera joaten zen jen- dea bertara, sagardoz zein ardoz ondo busti- ta. Gerra ondorengo urteetan hasi eta 1993ko iraila arte, ez ziren gutxi izan Ai- tzakirako bisitak ohitura bihurtu zituztenak; azpeitiarrak, zer esanik ez, baina baita ingu- ruetakoak eta dezentez urrutiagokoak ere. Uda partean, hango parrapeak estimazio handia izaten zuen; negurako, berriz, lokale- ko aterpea hobe. Guztira, kanpo eta barru, ehun bat lagunentzako tokia zuten.

Irailean bete ziren 25 urte Errebaleko sa- gardotegiak atek itxi zituenetik, eta bi belau- nalditako aitzakitarrak elkartu ditu Uztarriak Aitzakiren historia eta istorioak berritzeko as- moarekin. Luxiano (1938), Angel (1941) eta Fatima Arakistain (1947) Pedro Arakistainen eta Anttoni Olaizolaren seme-alaba gaztee- nak dira; Fernandorekin, eta hilda dau- den Martin, Javier eta Jexuxekin, zazpi senideko familia osatzen zuten. Jexux (1963) eta Mar- tin (1967), Jexux zenaren semeak; eta Fer-

nando (1974), Fernandoren semea, dira Ai- tzakiren azken urteetan sagardotegian lan egin zuten lehengusuak.

Jeneroa, norbere kontura

Pedro Arakistainek eta Juan Olaizola bere koinatuak jarri zuten martxan Aitzaki; gerra ondorengo urteetan izan zela diote Pedoren seme-alabek; ez dute data zehatzik gogoan. “Gerra aurretik, soziedade bat omen zen ge- rora Aitzaki egon zen tokian. Gure aita eta osaba hango bazkideak izan ziren. Gerra eto- rri zenean desegin omen zen soziedadea, eta ondoren hasi ziren sagardotegiarekin aita eta osaba. Osaba eta lehengusuak aspertu, eta gure aitak eta anaiek jarraitu zuten Aitza- kirekin”, kontatu du Fatimak. Familia osoak zuen lotura estua Aitzakirekin, baina Jexux, Javier, Luxiano eta Angel ziren, batik bat, aita- rekin batera aurrea eta haren lekukoa hartu- ta ondoren, sagardotegian lan egiten zute- nak. Sagardotegian lan, baina bakoitzak bere lanpostuan lanaldia bete ondoren, beti ere. Luxianok dioen bezala, “Aitzakitik jubilaziorik ez du inork kobratu”.

Aitzaki sagardotegia zen, baina ez gaur egungo sagardotegiak bezalakoa. Urte asko-



Zutik, Pedro Arakistain eta Anttoni Olaizola. Javierren sorbaldan du eskua amak, eta Fernando da jertse zuriduna. Besteak, jesuitak, Martinen lagunak.

an, astelehenetik igandera, "egunero" irekitzen zuten; astegunetan, iluntzetan bakarrik, eta igande eta jaiegunetan eguerdietan ere bai. Angelek jarri zuen bidea igandeetan ixteko: "Ni ezkondu nintzenean hasi ginen igandeetan ixten, edo andregaia topatu nuenean, horixe ez dakit garbi orain... Noski, neskarekin irten beharko ginen ba!". Jexuxek gogoan dauka beren aita "bazkalondoan edo bostak alderako" nola joaten zen Aitzakira. Telefonican egiten zuen lan hark, goizago libratzen zen lanetik, eta beste hiru anaiak tailerretik libratzerako lanak aurreratzen zituen. Sei eta erdiak aldera irekitzen zuten eta gaueko hamarrak aldean itxi, astegunetan behintzat. "Horregatik ez zen ematen kaferik, hurrengo egunean lanera joan behar izaten zen eta", dio Jexuxek.

Bezeroek eramaten zuten jan behar zutena Aitzakira, hangoek parrilan presta zezaten. Hori zen, batik bat gaurko begietatik ikusita,

Errebaleko sagardotegiaren berezitasun nabarmenena. Edatekoa eta postrea –gazta, menbrilloa eta Artinata gailetak, Aitzakiko *copa de la casa*– jartzen zituzten sagardotegikoek. Txuletak –bereziki–, saiheskia, legatz-kokoteak, bisiguak... angulak ere parrilan prestatzen zituzten; eta hiru anai-arrebak bat datoz parrilan esku onena zuena Jexux anaia zela esaterakoan.

Famatua zen Aitzakiko entsalada ere, eta hura prestatzen abilena Luxiano, haren anai-arrebek zein ilobek diotenez. Osagai sekreturik ez dute aipatzen Luxianok eta Angelek, baina bai zenbait argibide: entsalada, fuente atalean; tomatea eta letxuga, ahal dela, nahastu gabe; tomatea "eskuetan eta kantoka" ebakita; eta letxuga eskuekin nahastuta.

Toreroak, Wolde, Busca Isusi

Jatekoa, lagunartea, tokiaren berezitasuna... xarma zuen Aitzakik. Betiko bezeroen fidelta-

guna oinarri, saninazioetan festara etortzen zirenak ere saldoka joaten zitzaizkien; baita toreroak ere: Espartaco, Curro Romero, Camino... Mamo Wolde atleta handia ere iritsi zen Errebaleko sagardotegira. Saninazio batzuetan Busca Isusi sukaldariak perretxiko kirtenekin prestatu zuen zopa "mundiala" ere gogoan dute aitzakitar zaharrenek, sukaldetan utzi zien kuxidadea bezalaxe. Garbiketaz hitz egiten hasita, emakumeen ardura zela garbi utzi dute: Fatimak aurrena eta Maxi Elorzak gero –Jexux zenaren ematea– garbitzen zituzten egunero Aitzakiko ontziak. "Eta orduan ez zen garbigailurik, e? Ezta ur bero-rik ere, gerora arte!", dio Fatimak.

Bigarren belaunaldikoen nekeak, gazteen lan-munduratzek, ohitura berriek... Denek egin zuten bat duela 25 urte, Aitzakiri betirako agur esateko. "Itxi beharra zegoen", diote gazteenek. Osabek eta izebak bezala, argi dute Aitzaki "beste garai batekoa" zela.✱



Instalakuntza Elektrikoak

Urko: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
 ikaargilanak@gmail.com www.ikainstelmak.com
 20730 AZPEITIA



AIZPURU AUTOAK

PREZIOEN LAGUNA

Tel: 943 81 23 69
 Fax: 943 81 22 88

aizpuru@aizpuru.net
 www.aizpuru.net

Arretas 57, 20730 AZPEITIA

III TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

III FARMAZIAK (ABENDUA)

1-2-7-12-19-26

Jacome (Azpeitia).
943080258

5-11-18-22-23-28-31

Alberdi (Azpeitia).
943 815974

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abenduan bi hitzordu, 12an eta 26an, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

III ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

III ERABILGARRI



▲ ERRESERBAK 'ON LINE'

Sindikatu Zaharreko eta Baigerako aretoak Internet bidez ere erreserbatu ahal izango dira aurrerantzean. Nahi duenak 'erreserbak.azpeitia.eus' atarian egin ahal izango du gelaren eskaera.

4-13-20-24-29-30

Arrieta (Azpeitia).
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN

Alberdi (Azpeitia).
943 815974

III GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegia osoa:

www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

CLAUDIA REQUE

Cochabamba, Bolivia

“Leku batean bakarrik egonda, Lagunekin osatzen duzu familia”

Aitaren lana tarteko, AEBetan, Argentinan eta Venezuelan bizi izan da. Egun, 14 urte daramatza Azpeitian. 📌 **Ihintza Elustondo**

Erraz egokitu al zara hona?

Aurrez beti hiri handietan bizi izan nintzen, eta hasieran kostatu egin zitzaidan herri batean bizitzea. Jendeak ezagutu egin behar izan ninduen onartu baino lehen. Denbora eman diet, eta oso ondo hartu naute.

Latinoamerikarrak eta euskal herri-tarrak oso ezberdinak direla diote.

Hala da. Hasieran asko harritzen ninduen jendearen hotsasunak, zerbait pertsonala zela uste nuen, baina gero konturatu nintzen hemengo izaeraren parte dela. Iritsi berria nintzela, alabaren andereñoak esan zidan: “Izan pazientzia, itxiak gara, baina irekitzen garenean, benetan leialak gara”. Eta hala da.

Zer gustatzen zaizu hemendik gehien?

Balioak. Hiri handietan balio asko galdu egin dira, jendea oso indibidualista bihurtu da. Herri batean dena da familiarragoa, denok ezagutzen dugu elkar, eta zerbait gertatzen bada, denek laguntzen dute.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Oso sinplea. Euskaltegira eta Angel Oiarzabalen eskolara dantza ikastera joaten naiz. Gainera, taberna batean lan egiten dut, eta

txakurra paseatzera atera ere bai. Eta gai-nontzean, etxean egoten naiz; besterik ez.

Urrestildar bat latinoamerikar bati salsa irakasten?

Bai, hala da. Badaezpada ez diet Bolivian ezer esaten [barreak].

Ezberdintasun handia al dago Bolivia-ren eta Euskal Herriaren artean?

Bai, batez ere, bizi kalitatean. Han ezin duzu iturriko ura edan, eta hezkuntza nahiz osasuna pribatuak dira. Gainera, nire hirian zaila da naturarekin harremana izatea. Hara joaten, faltan sumatzen dut Xoxote.

Eta hemen, zerbait sumatzen al duzu faltan?

Batez ere, beroa. Eta familia ere bai. Baina ikasi dut zilbor hestea eteten. Hasieran kostatu egin zitzaidan, baina ezin nuen jarraitu han eta hemen bizitzen. Orain, hemen dago nire familia. Leku batean bakarrik egonda, lagunekin osatzen duzu familia.

Boliviara Itzultzeko asmorik bai?

Ez, agian, jubilatzen naizenean edo... Baina orain hemen dago nire etxea. Hemen hazi nahi ditut nire seme-alabak. ✨



1. Claudia Reque, Balentina Agirre plazan.
2. Alabarekin eta dantzako lagunekin.
3. Iazko Gabonetan Boliviara egindako bidaian, familiarekin.

9.361 kilometrora dago Cochabamba.



Zuztarrak

O

rdubeteko bidea egin dugu autoan herriraino. Igande arratsaldea, barru giro dago. Tabernara egin nahi izan dugu musika emanaldia baino lehen. "Ez, hemen jende asko zegok. Goazen plaza aldera!". Jende bilera izan da. Egutegia nazio-arteko egunez bete dago, lehen santu eta santa egunez bezain bete. Eta oraintxe ez dakigu zer dugun nahiago, gure izenak ere santuz eta santaz beteta dauzkagu eta.

Tabernara sartu eta hantxe lehenengo santua. Gorria. Eta Rosa. Rosa zela uste dut, behintzat. Eta Artola. Majo kanbiatuta dabil, baina ezagutu dugu, ezagutzeko gauza izan gara. Jende asko plazako taberna horretan ere, eta lehen Erdikalean gora egin dugun bezalaxe egin dugun orain Erdikalean behe- ra. Erdikalea bera ezagutzen lanak guk, lehen begiak itxita ere ezagutuko genuenok, hain- beste urtean kalean gora-kalean behera ibili eta gero.

Barrua berotu eta Sanagustinera sartzeko ilara ikusi dugu. Egundo horrelakorik! Ilara. Haraxe egin dugu guk ere, ilaran jarri gara... Eta bata eta bestea elkarri begira. "Zuk ez nauzu ezagutzen...". "Ez dakit, ba...". "Arantxa naiz. Zu gure alaba bigarrenaren irakasle izan zinen...". "Bai, baina hilabete batzuetan besterik ez. Kurtso hasi besterik ez nuen egin urte hartan"... Eta joan zinen eta ez zinen itzuli, oso tarteka besterik ez. Gero baino gero bisita gutxiago herrira, urtean behin etorri arte. Urtean behin besterik ez. "Gehiagotan etorri behar dek, hik zuztarrak hemen daukak!", akordatzan naiz, Manuelen bila Zelaixo parean, Zelaixo izan zenaren paretik pasatzerakoan. "Hik zuztarrak hemen daukak!".

Zuztarrak.

Ekarri ni herrira

Eta egia izango da, ez da gezurra izango. Musika emanaldia bukatu, eta hantxe Nekane. "Ez haut ezagutu, baina hemen hintzela esan zidatek. Zer moduz bizi haiz?". Hantxe Alber-



|||||||miel a. elustondo|||||

||| Ez utzi ni herritik kanpora lurperatzen, ez errautsak astintzen, ez bestelako ekitaldi zibilik egiten

to, hantxe Laxaro eta Maria Anjeles, hantxe Iñigo, Joxe Luix eta Xabi... Hantxe... "Ezagutzen al nauk?". Orduantxe bihotza irauli, atxi- murkada galanta barruan, etengailuari eragin izan baliote bezala izan da. Ezagutu dituzu, hantxe Ana Mari, hantxe Izaskun, hantxe las- ter Roxa Mari... Etxekoak. Eta hango musu eta besarkadak. "Halako hil zen, halako bizi da. Azkena elkar ikusi genuena, berriz, Moisesen denbora. Eta hau eta hori eta hura. Hitz batzuk besterik ez, haiei lotuta gaudela konturatzeko. Pozik lotuta ere. Herri honi nahitaez lotuta. Umetako garaia agintzen duela eta aginduko duela betiko. Umetako garaia pasatutako tokioak izango garela az- keneko ordura arte. Eta ez utzi ni herritik kan- pora lurperatzen, ez errautsak astintzen, ez bestelako ekitaldi zibilik egiten. Ekarri ni he- rrira, arrastaka bada ere, Ana Mari, Izaskun, Roxa Mari, Gorria, Artola eta gainerakoen on- dora. Zuztarrak dauzkadan tokira, zuen on- dora.✱



TiEN21 ESNAOLA

ZATOK
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com



KULTUR BONOA 2019

Lastar salgai!

KulturWZ

Azpeltiko Kultur Mahalaren Kooperatiba